



LEHIOA ELORRIAGA

Ane Ibarra eta Eneko Boveda futbola pasioz bizi duen bikotea dira. Ibarra Elorrio taldeko erreferenteetako bihurtu da. Bovedak Coruñaako Deportivorako bidea hartu du erronka berrien bila. • 2-3. orrialdeak

2018ko otsailaren 16a | 16. urtea | 709. alea
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

 **anboto**

TOKIKOM



EAJ alkategai

bila Durangon

Aitziber Irigoras Durangoko alkatea ez da 2019ko udal hauteskundeetara aurkeztuko. Durangoko jeltzaleek hautagaia aukeratzeko prozesua abiatuko dute. Aste Santurako hautagai berria izendatzea gura dute. • 4



“Berezia da guretzat bira etxean amaitzea”

Musika | Shinova taldeko Gabriel de la Rosa ANBOTOGaz elkartu da biharko kontzertuaz berbetako. 14. orrialdea

gandarias

Interiorismo



LIKIDAZIOA
%70erainoko deskontuekin

Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango · info@mueblesgandarias.com · Tel.: 946 810 722



LEHIOR ELORRIAGA

Ane Ibarra Alutiz
Elorrio futbol taldeko jokalaria
Elorrio | 1989

Eneko Boveda Altube
Coruñako Deportivo taldeko jokalaria
Durango | 1988

“Askotan komentatu dugu kanpora joateko aukera sortu zitekeela”

Futbolariak, bikotea eta, 2016ko uztailaz geroztik, gurasoak dira Eneko Boveda eta Ane Ibarra. Coruñako Deportivoak fitxatu du Boveda eta bere ibilbidea Elorrion darama Ibarrak

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Futbola txikitatik arnastu dute, zaleak dira eta, Enekoren kasuan, entrenatzaile sintomak ere nabari zaizkio. Niko semea besoetan dutela etorri dira elkarriketara. Bertan zain dauden aitita-amamei utzi diete. Eurek zainduko dute etxeko txikia futbolari biak kazetariaren galderak errematatzen dituzten bitartean.

Badira aste batzuk Coruñako Deportivoak fitxatuta Galiziarra joan zarela, Eneko. Moldatu zarete egoera berrira?

Eneko Boveda: Niretzat Anerentzat baino errazagoa izan dela esango nuke. Izan ere, neu joan naiz. Lanik handiena Nikogaz dauka eta Ane da ahalegin bikoitza egin behar duena.

Ane Ibarra: Bagabiltza moldatzen. Enekoren gurasoen eta nire gurasoen laguntza dugu, besteak beste. Bestela, gaitza litzateke.

Balantzaren alde batean zein bestean pisuzko arrazoiak jartzen di-

renean kosta egiten da erabakiak hartzea?

E.B.: Bai. Azken batean, gurago dituzu alde onak ikusi, eta ez txarrak. Apustu hau egin dugu eta denborak esango du asmatu dugun ala ez.

Izan ere, kirolari baten ogibideak ezaugarri berezi bat dauka: iraungitze data.

E.B.: Trena behin pasatzen da normalean. Nire mailan diru kantitate inportanteak irabazten dira familiarentzat, eta apustua hori da, denok bide horretan arraun egitea. Azken batean, futbolari baten kirol bizitzak urte gutxi irauten du. Gure artean askotan komentatu dugu kanpora joateko aukera sortu zitekeela eta beti izan dugu batasun handia iritzietan eta erabakietan.

Eneko, zelakoa izan da lur-hartzea Coruñan? Giro nahasia egon da.

E.B.: Pozik nago aldaketagaz eta han aurkitu dudanagaz. Beraz, dena oso ondo, garrantzitsuena izan ezik: emaitzak eta taldea-

ren egoera ez dira onak. Badakit alde horretatik momentu gogorak biziko ditugula.

Aspaldian hainbat futbolari esan dute ez direla bereziki futbolzaleak. Ez dela beharrezkoa futbolari ikaragarri gustatzea futbolari izateko. Zuei betidanik gustatu zaizue?

A.I.: Nire kasuan, futbola barrutik bizi ezik, ez duzu jokatuko. Enekorena desberdina da, ogibidea delako. Niri gehien gustatzen zaidan zaletasuna da futbola.

E.B.: Futbola ikaragarri gustatu izan zait beti. Partiduak ikustea, futbolaz dakien bategaz partiduei buruz berba egitea, taktikak komentatzea, jokalaria... edozein kategoriatan, gainera. Bestalde, futbola ez gustatzea baino, gertatu daitekeena da maila batera heltzen zarenean hobya zena ogibide bihurtzea, eta futbolarik zuen erromantizismo hori galtzea. Nire kasuan, badinotsut, asko gustatzen zait:

Lehenengo Maila zein Hirugarren Maila, gizonena zein emakumeena...

Diozunagaz entrenatzaile profila ikusten dizut. Pentsatu duzu horretan?

E.B.: Askotan, eta gustatuko litzaidake. Baina, alde batetik, horretan jende asko dabilenez, zaila da. Bestetik, ez dakit familia zein ni prest egongo ginatkeen hain egonkortasun gutxiko ogibidean murgiltzeko. Horrek atzera eragiten dit.

“A.I.”Nire kasuan, futbola barrutik bizi ezik, ez duzu jokatuko. Gehien gustatzen zaidan zaletasuna da”

Batak bestea futboleko jokatzen ikusten duzue? Eta horrela bada, kritikoa zarete?

A.I.: Nik Eneko, beti. Bigarren B Mailan Eibarren zebileanean ere Ipuruara joaten ginen etxeko partiduetan. Bilbao Athleticen, Baskonian... denean ikusi dut.

E.B.: Eta sufritzen beti.

A.I.: Oso beroa bainaiz. Gauzak ondo doazenean asko gozatzen dut, eta txarto doazenean asko sufritzen dut.

E.B.: Ni gutxitan joaten naiz Ane ikustera, baina, joan naizentan, zelan esan...

A.I.: Idazluma eta arbela ateratzen ditu.

E.B.: (Barreak) Ezin dut ekidin. Entrenatzaile sen hori irtetzen zait. Gainera, jokaldi denak luza-roan gordetzen ditut buruan.

A.I.: Nire analisiak orokorra goak dira. Batez ere, animatzen saiatzen naiz. Baikorra goa naiz. Animoak ematen dizkiot. Eneko, aldiz, detaile zehatzagoetara joaten da.

Eneko, zuk patxadatsua ematen duzu, eta Ane, zuk bizitasun handikoa. Ondo konpentsatzen duzue izaeren talka hori?

E.B.: Orokorrean, bai. Geure onetik atera ere bai batzuetan, baina denbora daramagu elkarregaz, eta ez dugu meritu gutxi!

A.I.: Uste dut erabat konpentsatzen dugula hori. Izaera aldetik, punta banatan gaude, baina, hain zuzen, horixe da harremana orekatzen duen osagaia.

Ane, zure ibilbide osoa Elorrion daramazu. Gustura sentitzen zaren kluba da?

A.I.: Gugaz oso ondo portatu izan dira beti Elorrion. Beste talde batzuetan gertatu diren esperientzia eskasak entzun izan ditut, baina ez da izan gure kasua. Bai, badut gertutasun sentimendu hori gaur egun nabilen klubarekiko.

Euskal Ligara igotzea lortu zenuten orain hiru denboraldi. Maila zorrotza da.



Eneko Boveda Coruñaiko Deportiboren entrenamenduan.



Ane Ibarrek Euskadiko Euskal Ligan jokatzen du Elorrio futbol taldeagaz. Mva

A.I.: Bai, bada. Harrezkero ez gara jaitsi eta nahiko postu onetan amaitu izan dugu. Iaz hirugarren amaitu genuela uste dut. Aurten denboraldia nahiko ahul hasi genuen, txarto ez esateagatik, baina gero gora egin dugu. Gero eta hobeto gabilta.

Jokalari berriak batzea kostatzen da?

A.I.: Elorrio herri txikia da. Ez dago hainbeste jenderik, eta futbolearen hasi gura dutenak oraindino gutxiago dira. Gainera, urrun dago Bilbo edo beste hainbat ingurutatik. Beraz, bai, kostatzen da jokalaria batzea. Antzerako taldea dugu urte askoan, baina badira gurera batu diren jokalaria berriak.

E.B.: Taldeak eta klubak fama ona dute.

A.I.: Bai, talde batua gara, giro ona dago eta entrenatzaileak asko laguntzen digu. Bilbo, Markina eta Elgoibarko jokalaria izan ditugu. Eta Durangaldekoak ere bai. Zerbait ondo egiten dugunaren seinale da, nire ustez. Bestela, ezingo genion taldeari eutsi. Dena behar da.

Eneko, Athleticera batzeko lehengo deia jaso zenuen eguna gogoan duzu?

E.B.: Eibarren nenbilen. Denboraldi oso ona egiten ari ginen, eta taldea ondo dabilenean norberak ere nabarmentzeko aukera handiagoa izaten du. Nire denboraldi onak Iraolaren azkenengoagaz bat egin zuen. Hainbaten, ez zuela jarraitzeko asmorik esango zion Andonik klubari, eta beste baten bila hasiko ziren. Sarritan, horrelako egoerak gertatu behar izaten dira.

Zeintzuk ziren zuen umetako futbol idoloak?

A.I.: Txikia nintzenean, Etxebe [Joseba Etxeberria] zalea nintzen. Bere kamiseta nuen.

E.B.: Ez naiz izan idoloak izatekoa, baina esango nuke nirea ere Etxebe izan zela. Gure umezaroan bere urterik distiratsuenak izan ziren. Gure garaia beragaz lotuta dago.

Gizonetako jokalaria aukeratu du?

A.I.: **“Bilbo, Markina eta Elgoibarko jokalaria izan ditugu. Zerbait ondo egiten dugunaren seinale da”**

E.B.: **“Erraza egiten zait Kepa Arrizabalagaren tokian jartzea eta holako egoerekin enpatizatzea”**

zue biok. Emakumeetan jokalaria izatea eta talde garrantzitsu batean aritzea ez da nahikoa errekonozimendua lortzeko.

A.I.: Bai, baina egoera apurka aldatzen doala ere ikusten dut. Futboletik bizi daitezkeenak badaude. Athleticen emakumeen taldea goian ibiltzea ona da. Jarraitu ala ez, dudan dagoen neska gazteak aurrera jarraitzeko erabakia hartu dezake eurak ikusita.

E.B.: Hobbya ogibide bihurtzeko aukera hori txikia izanda ere, ona da. Egia da oraindino salbuespen egoerak direla, baina, gutxienez, horrelako aukerak sortzen hasi dira. Lehen ez ze-

goen aukerarik ere. Oso zaila da egun batetik bestera dena aldatzea: sortzen duen interesa, mugitzen den jende kopurua... Pausoz pauso eta testuingurua ulertuz egin behar da aurrera.

Ane, emakumetako futbolaria izateagatik gutxietsi zaituzte inoiz?

A.I.: Gertatu izan zait ez sinestea futbolearen jokatzeko dudala. Futbolearen entrenatzailea noala esan, eta “zuk zelan jokatu duzu, ba, futbolearen” entzutea. Gazteagotan eztabaidan hasten nintzen gehiago. Orain, esan duenak duela arazoa uste dut, eta ez nik. **Haurdun geratu zinenean, argi zeinukan semea jaio ostean futbole-ira itzuliko zinela?**

A.I.: Gura nuen, baina hasieran ez nuen argi. Batez ere, haurdun nengoenean. Gauza asko entzuten direlako. Kontu handia izan behar dela, etorkizunean gorputzari kalteak eragin diezaiokiola... Niko jaio ostean, ordea, gogoia piztu zitzaidan berriro, barrua dantzan hasi zitzaidan.

E.B.: Futbolaren, bere inguruko giroaren eta errutinaren falta sumatzen zituen.

A.I.: Fisioterapeuta batek hasi nintzen, eta hark diseinatutako plangintzari jarraitu nion. Niko 2016ko uztailean jaio zen eta abenduan jokatu nuen itzulera-ko aurreneko partidua. Sei hilabete izan ziren. Hasieratik ondo ikusi nuen nire burua.

E.B.: Fisioterapeutaren aginduak serio hartu zituen.

A.I.: Badakizu, zerbait gura duzunean, serio hartzen dira kontuak.

Eneko, gazteagotan literatura lehiaketetan sari bat baino gehiago

irabazi zenuen. Gaur egun oraindik idazten duzu?

E.B.: Egia esanda, ez. Irakurri bai, dezente, baina idatzi, ez. Iurretako ipuin edo bertso lehiaketak, Azkue sariketa... hainbat lehiaketa irabazi nituen. Esku ona nuen idazten.

Letretarako afizioa eta sormena aitari zor dizkiozu? [Xabi Boveda euskara irakaslea da Durangoko Institutuan].

E.B.: Segururik, hein handi batean, bai. Aitari zein amari esker, liburuak ez dira gauza arrotza izan niretzat. Eta irakurzaletasuna lotuta dago idazteko gaitasunagaz.

“E.B.: **“Iñigo Martinezen agurra gustatu zitzaidan; hurbila eta polita iruditu zitzaidan”**

Gero esango dute futbolariak ez direla kapaz hiru berba segidan josteko!

E.B.: Gehiago gutxiago, lan guztiak gutxiesten dira; futbolariak tontoak direla esaten da, irakasleak alferrak, politikariak lapurrak, kazetariak...

Manipulatzaileak...

E.B.: Horixe, ez dela inor libratzen.

Deportibora zindoazela iragarri zenean, euskara batuan idatzi zenuen zure agurra. Beste batzuek euskalkia erabili dute, ondarrutarra esaterako...

E.B.: Ez naiz ni nor zuzenagoa zein den esateko. Bere euskalkian idatzi duenak, beharbada, bereago sentituko du idatzi due-

na. Niri Iñigo Martinezen agurra gustatu zitzaidan, idatzi zuena bera zela imajinatzen nuelako. Niri hurbila eta polita iruditu zitzaidan.

Eta Iñigo Martinezagaz gertatu den kontu guztia, zer iruditzen zaizue?

E.B.: Bufanden kontua apur bat albora utzi beharra dagoela iruditzen zait. Futbol profesionala dela ulertu beharra dago, eskaintza eta eskariaren jokoak. Athleticek apustu handia egin du jokalaria bategatik. Jokalaria hainbat gauza jarri ditu balantzan eta, azkenean, erabaki bat hartu du. Niri guztiz zilegi iruditzen zait bakoitzak bere bidea aukeratzeko eskubidea izatea, inork ezer leporatu barik.

Deportibora joan ostean eskainitako prentsaurrekoan Kepa Arrizabalagatik galdetu zizuten, eta argi egin zenuen berba. Erabakia edozein izanda ere, babestuko zenuela adierazi zenuen.

E.B.: Izan ere, erraza egiten zait Keparen tokian jartzea eta horrelako egoerekin enpatizatzea. Bakoitzak bere mailan erabakiak hartu behar izaten ditu. Koloreekiko maitasuna arrazoitatu bat da, baina ez bakararra. Balantzan beste hamaika arrazoitatu egon daitezke: ekonomikoa, urte kopurua, anbizio profesionala, familia mugitu ala ez... Egoera horretan ez dagoenarentzat erraza da pentsatzea kolorea dela faktore bakarra, baina 20 edo 22 urteko gazte batek, beharbada, bere bizitzako erabaki inportanteenetako bat hartu behar du une batean, eta ezin da faktore batera mugatu.

Irigoras ez da hauteskundeetara aurkeztuko, eta EAJk beste hautagai bat aukeratzeko prozesua hasi du

Irigorasen esanetan, irakasle lanpostura bueltatu gura izatea da erabakia hartzeko arrazoi nagusia; herriko EAJrengan erreleborako konfiantza du



Aitziber Irigoras, artxiboko irudi batean.

asko” dagoela azpimarratu, eta barne prozesu baten ostean alkatetzarako proposamen bat lortzeko bidean hasita daudela dio.

Irigoras: “Ohore bat izan da hainbeste maite dudan herriko alkatea izatea”

Irigoras: “Handitu egin ditugu txartoen pasatzen dabilzanen aldeko diru partidak”

Bestalde, prozesu horretaz aparte, Durangoko jeltzaleak beste hausnarketa batean murgilduta ere badaudela aurreratu du. “2030ean zelako Durango eduki gura dugun” aztertzea da euren helburua.

Gorrotxategik esker hitzak izan ditu egungo alkatearentzat, “konpromiso, ausardia eta aguanteagatik”. Tentsiozko egoera politikoa bizi izan du une askotan, baita akordioetara heltzeko zaila ere, eta hori bereziki baloratu du Gorrotxategik. Hain justu, egun PSE-EEgaz duten gobernu akordioa “Durangorentzat ona” izan dela uste du presidentek.

Atutxak, bestalde, Irigorasek egindako esfortzu pertsonala eskertu du. “Ohore handia izan ohi da herri bateko alkate izatea, baina politikan dagoen lanik gogorrena da”.

Irigorasek berak ere eskerrak ematen amaitu du bere interbentzioa. Durangarrei, EAJko kideei, zinegotziei eta batez ere urteotan alboan alkateorde lez eduki duen Mari Jose Balierreri. Eta, zelan ez, gogoan hartu ditu Natxo Martinez eta Juan Jose Ziarrusta ere.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Aitziber Irigoras ez da Durangoko alkate izango 2019ko ekainetik aurrera. Udal hauteskundeetara berriro ez aurkezteko erabakia hartu du, eta eguaztenean Durangoko EAJko kideei informatu ostean, atzo prentsaurrekoa eskaini zuen Ander Gorrotxategi herriko jeltzaleen presidentegaz eta Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentegaz. EAJk hautagai berria izendatzeko prozesua hasi

du, eta Aste Santuaren aurretik aurkeztea espero dutela esan zuen Gorrotxategik.

Irigorasek 11 urte beteko ditu alkatetzan. 2008an hartu zuen kargua, Juan Jose Ziarrusta bat-batean hil eta gero –aurretik 5 urte zerratuz Ziarrustaren alkateorde–. Deustuko Unibertsitatean irakasle zen orduan eta, bere arabera, gustuko duen lan horretara bueltatu gura izatea da erabakia hartzeko

arrazoi nagusia. Urteotan eszedentzia hartuta egon da.

“Ohore bat”

“Ohore bat izan da hainbeste maite dudan herriko alkatea izatea”, nabarmendu du Irigorasek. Gogoratu du kargua hartu eta berehala krisi ekonomikoa heldu zela, eta egoera horretan “zerbitzuak mantendu” ahal izateari balioa eman dio. “Murriztu ez, handitu egin ditugu txar-

toen pasatzen dabilzanen aldeko diru partidak”, gogoratu du. Bere esanetan, “ekonomia saneatu” bategaz utziko du udala, eta taldearengan ere konfiantza dauka. Gainera, EAJren barruan erreleboa segurtatuta dagoela dio.

Ziklo aldaketa

Gorrotxategi presidentearen berbetan, “ziklo baten amaieran gauden”. Hala ere, EAJren atzean “jende

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko otsailaren 16a
16. urtea - 709. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

LAGUNTZAILEAK

“Norberaren baitakoa ulertzea inportantea da edozein jendarte eraldaketan”

Durango Bilgune Feministak eta Euskal Herrian Euskarazek antolatutako berbaldian Lorea Agirregaz batera parte hartuko du Idurre Eskisabel kazetariak

DURANGO • MARCEL ONAINDIA

‘Euskara eta feminismoa bidaide’ izeneko berbaldia eskainiko dute Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek otsailaren 22an, 19:00etan, Plateruenean. Kazetariak eta antropologoak dira biak.

Akaso norbaitek esango du zertara datorren euskara eta feminismoa lotzeko ideia hori...

Loreak eta biok, alde batetik, bizipenetik lotzen ditugu arlo biak. Oso gaztetatik, gure bizi jarduna euskalgintzari lotuta egin dugu, eta gure beste ardatzetako bat feminismoaren ingurukoa izan da. Halako batean, bien uztardura etorri zitzaigun. Mari Luz Estebani entzun genuen lehendabizi, eta jakin genuen Galizian ere bazebiltzala lotura edo lanketa horretan. Menderakuntzak eraman gintuen arlo bietan lan egitera, eta konturatu ginen elkar elikatu zezaketela. Bestalde, feminismoak eraldaketa edo berrikuspen bat eskatzen du esparru sozialean, ekonomikoan, politikoan eta kulturean. Hizkuntzen bizikidetzan eta gatazkan ere badago hori.

Beraz, zapalkuntza da arlo biek amankomunean duten oinarri bat.

Nik oso umetan sentitu nuen neska nintzela, eta izate horregatik bazter batera eraman nindutela. Gure gelako mutilek erabaki zuten jolas nagusia futbola izango zela, jolaslekuan lekurik

handiena hartuko zuela eta neskok ez genekiela futboleak. Bestalde, nerabezarora heldzean, euskaraz aritzea “inpopularra” bihurtu zen. Besteen onarpena izateko, autobuseko atzeko ilaretan joateko, gaztelaniaz aritu behar nuen. Gauza oso txikiak dira, baina, seguruenik, denok ditugu horrelako esperientziak. Bigarren mailako bihurtzen gaituzte.

Feminismotik hedatutako pentsaera bat da alde pertsonala politikoa ere badela.

Feminismoaren ekarpen inte-

“

Egunerokotasuneko gauza domestiko eta intimo guztiak ere politikoak direla esaten dugu”

“

Gaur egun, ‘amatasuna’ esaten zaion hori baino gauza politikoagorik ez dago, terminotik hasita”

—

resgarrienetako bat dela uste dut. Egunerokotasuneko gauza domestiko eta intimo guztiak

ere politikoak direla esaten dugu. Norberaren baitako hori ulertzea inportantea da edozein jendarte eraldaketan. Seguraski, pasa den mendeko utopia handiek huts egin badute izan da dimentsio indibidual hori ez delako kontuan hartu. Noski, dimentsio horren arrisku bat ere bada soilik horretara mugatzea, dimentsio kolektibo kentzea. Gaur egun, *amatasuna* esaten zaion hori baino gauza politikoagorik ez dago, terminotik hasita. Izan ere, inoiz baino baldintza gehiago daukagu *gurasotasuna* esateko; baditugu haurrak amarik ez dutenak. Baina, aparte, hedabideetan ere amatasunaren gaia agertzean, nekez agertuko da politika atalean. Normalean orrialde arinetan agertzen da, bizimodua hobetzearen ikuspegi psikologikotik eta oso indibidualizatuta. **Euskararen arloan, norbere borroka esparru moduan ulertzeko jarrera ahuldu dela esango nuke. Mindu egiten naiz artista batek erdararen batean sortzen duenean.**

Hizkuntza auziagaz daukagun jarreraren lausotze bat gertatu dela uste dut, nagusitu diren diskurtsoek daukaguna baino errealitate gozoagoa marrazten digutela. Egia da aurrerapen handiak eman direla, baina zapalkuntza sakona eta luzea da. Feminismoagaz ere gertatzen da hori; nire ustez, faltsua den berdintasun bat dago instalatuta.



Idurre Eskisabel Larrañaga
Kazetaria eta antropologoa
Beasain | 1970

“

Feminismoagaz ere gertatzen da hori; nire ustez, berdintasun faltsu bat dago instalatuta”

—

Ez dira ageriko zapalkuntza mekanismorik indartsuenak bortsaz erabiltzen direnak, baizik

eta mehatxua bezalako mekanismo sutilak. Euskara prestigio sozialik gabeko hizkuntza izan da mende askotan zehar; oraindik galdetzen zaigu ea mediku ona ala euskalduna gura dugun. Kultur produkzioari dagokionez, sortzaile bakoitzak askatasuna du hautuak egiteko. Baina fenomeno sozial moduan, zapalkuntzaren ondoriozko konplexu zantzuak ikusten ditut. Hizkuntza hegemonikoei ere gertatzen zaie; estatu frantziarra kezkatuta dago ingelesa frantsesari egiten ari zaion itzalagatik.



lazko flashmobean bizitako une bat, Ezkurdin. Andreak

Dantzaren eta musikaren bidez, indarkeria matxista salatuko dute, domekan, Durangon

Martitzen goizaldean beste eraso sexista bat jazo zen, neska batek indarkeria psikologikoa sufrituta

DURANGO • J.G./M.O.

Dantzaren bidez, emakumeen aurkako biolentzia salatuko dute Durangon, asteon ere zoritxarrez presente egon den indarkeria, hain zuzen. Andreak elkarteak, udaleko Berdintasun Sailaren laguntzagaz, *flashmoba* (koreografia) antolatu du domekarako, 13:00etan, Ezkurdin plazan. “Dantzan egingo dugu iraultza hasteko, biolentzia amaitzeko, kontzientzia berri bat

sortzeko, non emakumeekiko biolentziak lekurik ez duen”, esan dute oharrean. *V-Day* izeneko munduko kanpainaren barrukoa da eta, aurtan, emakumeen esplotazioa salatuko dute bereziki, “politika

Andreak elkarteak, udaleko Berdintasun Sailaren laguntzagaz, flashmoba antolatu du domekarako

neoliberalak eta gerraren ondorioak sakonki sufritzen dituztenak emakumeak baitira”.

Mutila atxilotu egin zuten

Azken eraso sexista martitzen goizaldean gertatu zen, Durangon. Neska batek bere mutil-lagunarengandik indarkeria psikologikoa pairatu zuela salatu zuen. Ertzainek artatu zuten neska, eta mutila atxilotu egin zuten. Udalak babesa agertu dio emakumeari, eta Plataforma Feministak elkarretaratzera deitu zuen atzo iluntzerako.

Autzaganeko lanak epe barruan doaz eta martxoan amaitu ditzakete

Azken asfalto geruza botatzea eta kanpoaldeko argiztapena dira falta diren lan batzuk



La 700 metroko tunel bik alderik alde zeharkatuko dute Autzaganeko mendatea, bihurtune arriskutsuak ekidinda.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Autzaganeko tuneleko lanak epeen barruan doaz. Hasi zirenetik hona atzerapen bat baino gehiago izan dute, baina obren ardura beste enpresa batek hartu zuenetik, aurreikusitako datak betetzen ari dira. 2016ko otsail amaieran ekin zieten berriro lanei, eta arduradunek 25 hileko egitaritza epea zuten bukatzeko. Martxoan amaituko da epe hori, eta Aldundiko ordezkariak ANBOTOrri baieztatu diotenez, lanetan “ez dago atzerapenik eta epeen barruan” doaz. Euriteak bakarrik dira lana apur bat atzeratu dezaketen faktorea.

Ia 700 metroko tunel bik mendateko alde bata besteagaz lotuko dute, goitik igaro beharrik barik. Bihurtune arriskutsuak ekiditea eta trafiko emaria erraztea dira helburuak.

Lanen zatirik handiena amaituta dago. Errepideko azken asfalto geruza martxoan botako dutela azaldu dute Aldunditik. Horren aurretik, beste aglomeratu kapa bi botatu dituzte tunelean zein tunelerako sarreretan, oinarria sendotzeko.

Sistema eta sentore guztiak, fibra optiko bidez, Malmasineko Kontrol Zentrora lotuta daude dagoeneko

Segurtasun, argindar eta argiztapen azpiegiturak “erritmo onean” doaz. Barrualdeko argiztapen lanak amaituta daude eta kanpoaldekoak jartzea falta da. Horrez gainera, sistema eta sentore guztiak —fibra optiko bidez— Mal-

masineko Kontrol Zentrora lotuta daude dagoeneko.

Seinaleztapen bertikalak eta horizontalak zein segurtasun sistemak —hesi metalikoak eta hormigoizkoak— jartzea dira egiteko falta diren beste lan batzuk.

2012an hasitako lanak 2015ean amaitzea aurreikusita zegoen. Hiru urteko atzerapenagaz irekiko dituzte tunelak

Bihurgunez betetako obra

Errepidearen beraren antzera, bihurtunez betetako ibilbidea izan du proiektuak ere. Lanak 2012an hasi ziren, 2015ean amaitzeko helburuz. Beraz, hiru bat urteko atzerapenagaz amaituko dira.

2015eko abuztuan Aldundiak hautsi egin zuen kontratua proiektua gauzatzeko ardura zuten enpresekin. Izan ere, lanak geldirik zeuden hilabete inguruan. Enpresek ezin zioten aurre egin, besteak beste, ingurumen eskakizunei lotuta eratorritako gainkostuari. Aldundiak orduan azaldu zuenez, kontratuaren baldintza orriak “zehaztasunez” jasotzen zuen gainkostu horiek “obren esleipendunen kargu” geratzen zirela. Kontratua ez betetzearren, 4,2 milioi euroko zigorra jarri zieten. 2015eko irailan lanak amaitzeko proiektua onartu zuten. Bizkaiko errepideen kudeaketaren arduraduna den Interbiak erakundearen bidez, 2016ko urtarrilean esleitu zuten proiektua, 20,3 milioi eurotan, eta otsail amaieran hasi ziren lanean.

ZALDIBAR • A.M.

Etixerik etxeko laguntza zerbitzuen kudeaketak zeresana ematen jarraitzen du. CCOOk beste elkarretaratze batera deitu du biharko, “herriarentzat oinarritzkoa den zerbitzua” sustatzea eskatzeko Amankomunazgoari. Horrez gainera, udalen “konpromisorik eza” salatu gura dute. Sindikatuaren berbetan, zortzi urtean erdira bajatu da langile kopurua, 72tik 34ra. CCOO sindikatuak udala eta Amankomunazgoa jo ditu egoeraren erruduntzat; lehena, zerbitzuaren kudeaketa lehiaketa bidez enkantean ateratzeagatik. Bigarrena, oster, “kudeaketa ne-

“Herriarentzat oinarritzkoa” den zerbitzua sustatzea eskatzen dio CCOOk Amankomunazgoari

gargarria” egiteagatik. “Biek ala biek ez dute oinarritzkoa den zerbitzu hau behar bezala baloratzen”, kritikatu dute.

CCOOk protestara deitu du etxerik etxeko laguntza zerbitzuak “behar bezala” kudeatzea eskatzeko

Amankomunazgoan (EH Bildu-Herriaren Eskubidea) araudi berria lantzen dabilta, malguagoa egiteko

Biharko protesta Zaldibarko udaletxearen parean izango da, 12:00etan. Ekimena CCOO sindikatuak aurrera daraman kanpainaren barne dago. Eskualdeko beste udaletxeen aurrean ere deituko dituzte protestetara.

Egungo araudiaren arabera, mendeko direnek ezin dituzte aditu laguntza eta prestatzioa batera eskatu. Amankomunazgoko gobernu (EH Bildu-Herriaren Eskubidea) araudia lantzen dabil, malguagoa izan dadin. Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentearen berbetan, langile kopurua eskariaren arabera da, eta beharrez txikitzearen ondorio da langile kopurua gutxitzea. “Jende batek prestazio ekonomikoa aukeratzen du zerbitzuaren aurretik, eta guk ezin ditugu behartu zerbitzua aukeratzera” azaldu du Aitor Lopez presidentek.



2017ko azaroan elkarretaratzea egin zuen CCOOk Durangon.

Umeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta 25 urtetik gorakoak, aldiz, gutxien darabiltenak

Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabilera jakiteko Mañarian egindako ikerketaren ondorioak dira



Soziolinguistika Klusterra 76 udalerritan egin dute, tartean Mañarian.

NEURKETAREN DATUAK

- 76 udalerrietako batez bestekoa: %65
- Mañariko batez bestekoa: %66,4 (1.183 solasalditak)

Mañarian, adin tarteka:

- 2-14 artekoak: %85,7
- 15-24 artekoak: %71,9
- 25-64 artekoak: %55,1
- 65etik gorakoak: %60,5

Mañarian, umeren bat tarteko dagoenean:

- Umeek euren artean: %89,9
- Helduak umeekin dabiltzanean: %78,1
- Helduak, umerik ez dagoenean: %44,6

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eskatuta, Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilera neurtu du 76 udalerritan, tartean Mañarian. Herri denak kontuan hartuta, euskararen batez besteko kale erabilera %65 da, eta Mañariko portzentaia horren gainera dago apur bat: %66,4.

Adin tarteei erreparatu gero, euskara gehien darabiltenak 14 urtera arteko gaztetxoak direla erakusten du neurketak: %85,7. Ondoren, 24 urtera artekoak (%71,9) eta 65 urtetik gorakoak datoz (%60,5). Mañariko kaleetan entzundako

1.183 solasaldiren emaitzak jasotzen dituen neurketa horren arabera, 25-65 urte arteko adin tartean erabiltzen da euskararik gutxien kalean: %55,1.

Ikerketa 76 udalerritan egin dute, eta batez besteko orokorra (%65) baino apur bat handiagoa da Mañariko: %66,4

Datu hauetatik ondorioak ateratzeko, euskara dakitenen kopurua jakitea garrantzitsua da. 2011ko ikerketa baten arabera, mañariarren %80k daki euskaraz.

Umeekin euskara gehiago

Nagusien solasaldietan umeren bat tarteko dagoenean, portzentaia gora egiten du. Hau da, nagusiek euskara gehiago egiten dute umeekin badaude. Helduen eta haurren arteko elkarriketetatik %78 euskaraz izaten dira. Tartean haurrik ez dagoen helduen arteko elkarriketetan, aldiz, kopurua %44,6raino jaisten da. Aitzitik, kalean

Tartean umerik ez dagoen helduen arteko solasaldietan ematen da daturik baxuena: %44,6

Udala “pozik” agertu da datuekin; hala ere, hainbat alorretan lanean jarraitzea “ezinbestekoa” dela azaldu du

euskara entzuteko probabilitaterik handiena haurrak elkarren artean solasean dabiltzanean ematen da: %89,9.

Balorazio positiboa

Mañariko Udala gustura agertu da datuekin, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea leuntzeko beharra ere nabarmendu duen arren. Garazi Etxebarria euskara

zinegotziaren ustez, “pozik” egoteko datuak dira, “batez ere, euskaraz bizi garela erakusten duelako eta haurren eta gazteen artean oso bizirik sumatzen dugulako euskara”. Hala ere, kontzientziazioan eta beste alor batzuetan lanean jarraitzea “ezinbestekoa” dela azaldu du.

Ildo horretatik, hurrengo hilabeteetan hainbat ekimen proposatuko dituztela aurreratu du Etxebarriak. “UEMAGaz, herriko eragileekin eta euskaltzaleekin elkarlanean izango da, behar den kasuetan herritarren hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko”, adierazi du.

Garaitarrek berba edukiko dute lehenengoz udal aurrekontuan

Udal aurrekontuaren prozesu parte-hartzailea datorren eguaztenean hasiko da Garain, batzar zabal batez

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Datorren otsailaren 21ean, eguaztenez, udal aurrekontua eztabaidatzeko batzar zabala egongo da Garain, eta herritarrek prozesu horretan berba edukiko duten lehenengo aldia izango da. Beste herri askoren antzera, aurrekontu parte-hartzaileak landuko dituzte, 2018an zehar herrian zer proiektu edo obra garatu behar den erabakitzeko. Udaletxean izango da batzarrak, 19:00etan.

Duela aste batzuk Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

(HAPO) diseinatzen hasteko, batzar zabala egin zuten herrian, datozen hogeitazetako erronkei begira. Eta, hain justu, batzar horretan irten zen aurrekontua ere partaidetzaren bidez osatzeko proposamena.

Gontzal Sarrigoitia alkatearen esanetan, udal gobernua baditu zenbait ideia aurtengo aurrekontuari begira, baina herritarrek izango dira horien beharrezana edo lehentasuna baloratuko dutenak. Beraz, biztanleen iritzia jaso gura du udalak.



Aurten ze proiektu edo obra garatu erabakiko dute 21eko batzarrean.

Hondakin organikoak biltzeko sistema berria ipini dute martxan Mallabiko herrigunean

Debarrenako Mankomunitatearen bitartez jarri dute martxan sistema, eta herriguneko 300 familiek erabiliko dute



Herriguneko hainbat tokitan jarri dituzte zabor organikoak batzeko ontzi marroiak eta errefusa jasotzeko ontzi grisa.

MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Zaborra batzeko ohiko edukiontzi berdeak desagertu dira Mallabiko herrigunetik. Organikoa biltzeko edukiontzi marroiak jarri dituzte haien ordean, eta errefusa biltzeko ontzi grisak. Debarrenako Mankomunitateagaz jarri dute martxan sistema berria, eta herrigunean bizi diren 300 familiek erabiliko dute. Edukiontzien itxitura elektronikoa dute eta txartel bidez ireki daitezke.

Herrigunean bizi den horietako bat da Joaki Nogales. Ohiturak aldatzeak ahalegin bat eskatzen du, hala onartu du, baina birziklatzearen garrantzia nabarmendu du. “Berria da niretzat eta nola egin ikasi behar

dut, baina pozik nago. Ondo deritortot. Ohitu naiz papera, plastikoa eta beira birziklatzera, eta, orain, organikoa sailkatzera ere ohitu egin behar naiz”. Nogalesen berbertan, posible da hondakin guztiak

J. Nogales: “Berria da niretzat eta nola egin ikasi behar dut, baina pozik nago. Ondo deritortot”

birziklatzea, “eta ahalik eta zabor gutxien sortzera jo behar da, ingurumena zaindu gura badugu”. Errefusarako ontzi grisa sailkatu gabeko hondakinak botatzeko erabiliko duenik egon daitekeela onartu du,

baina sailkapena bakoitzaren ardurapean dagoela gaineratu ere bai.

Auzokonpost guneak

Dena den, hau ez da organikoa biltzeko sistema bakarra Mallabian: martxoan lau urte beteko dira lau auzokonpost gune jarri zituztela herrian, auzoetan eta herrigunean auzokonposta egin, eta konposta herrian bertan kudeatu eta berrebiltzeko. Hori aintzat hartuta, sistema berri hau “atzerapausoa” da Xabat Uzuriaga mallabitarraren ustet, “Debarrenako herri batzuen ezaugarriak ikusita, planteamendu egokia izan daitekeen arren”. Argitu duenez, “Mallabian batzuk sortzen dugu konposta; egiten da sail-

kapena. Beraz, herrian baditugun azpiegiturak erabiltzera bideratu beharrean, beste ontzi bat jartzeak ez du zentzurik. Konposta egiteko aukera dugu denok, herriak kudeatuta, eta konposta herrian geratuz.

X. Uzuriaga: “Baditugun azpiegiturak erabiltzera bideratu beharrean, beste ontzi bat jartzeak ez du zentzurik”

Edukiontzi grisak denok behar ditugu, bai, baina sailkapena eginda oso gutxi da bertara doana”.

Mallabian bildutako hondakin organikoak nola erabiliko diren ere galdetu du Uzuriagak.

Haurtzaroa berbaiz izango dute Umerri Eskolan antolatu duten ikastaroan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Helduek umeen haurtzaroa zaindu dezaten, eta honeguz kontzientziatu eta sentsibilizatzeke asmoz, Berrizko Umerri Eskola Aktiboan bi eguneko ikastaroa antolatu dute.

Martxoaren 3an goizez eta arratsaldean eta martxoaren 4an goizez egingo da ikastaroa, eta Ane Ablanedo irakasle eta haur prebentzioan adituak eskainiko du.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, 120 euro balio du ikastaroak, eta 12 orduko iraupena izango du. Bertan parte hartu gura dutenek aurrez izena eman beharko dute ikastaroakumerri@gmail.com helbidera idatzita.

Herritarrei begirako batzarra antolatuko dute martxoan plan orokorraren inguruan

IZURTZA • J.D.

Udalak berriro abiatu du Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko prozedura eta herritarrei parte hartzeko bideak irekitzea da lehenengo pausotako bat. Plana idazteko arduraduen taldeagaz batera data bat zehaztu dute. Batzar irekia martxoaren 24an izango da, jubilatuen lekuan. Plana azalduko dute eta herritarren ekarpenak jasoko dituzte. Otsail amaieran, beste batzar bat egiteko asmoa dute herriko elkarteekin.

Sute-detektagailuak jarriko dizkiete bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako lagunei

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondon bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako pertsonen sute-detektagailuak jarriko dizkiete. David Cobos alkateak jakinarazi duenez, duela zortzi urte inguru 50 bat laguni jarri zizkieten detektagailuak, eta orain beste horrenbesteri jarriko dizkiete. Sute-detektagailuak jartzeaz gain, bakarrik bizi diren nagusiei inkesta bat egingo diete teknikariek. Etxearen krokis bat ere egingo dute, gero suhiltzaileei emateko.

Hurbiletik



ARCADIO BENITEZ DAVILA

Eibar, Debarrenako Mankomunitateko presidentea

“Helburua ez da kontrolatzea, sailkapen egokia egin dadin sentsibilizatzea baino”

Europak jarritako helburuak bete gura dira: 2020rako %50eko birziklapen tasa gainditzea

Ieriaren %60 baino gehiago batu da sistemara, azaldu dutenez. Otsailaren 25etik aurrera, berriz, ezinbestean beharko dira txartelak. Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa Partzuergoak kudeatuko du bildutako hondakin organikoak.

Zein da helburua?

Herritarrek sentsibilizatzea, organikoaren bilketa handitu eta errefusa (birziklatu ezin dena) murrizteko. Hiri-hondakinaren %20 da birziklatu ezin dena. Europako

birziklapen helburuak bete gura ditugu; hau da, 2020rako %50eko birziklapen tasa gainditzea.

Nola kontrolatuko duzue gai bakoitza bere ontzira bota dela?

Helburua ez da kontrolatzea, hondakin sailkapen egokia egin dadin informatzea eta sentsibilizatzea baino. Txartelak aukera ematen du jakiteko bakoitzak urtean zehar zenbat bider erabili duen ontzi bakoitza. Hori jakinda, kanpaina zehatzak proposatu daitezke, berziklapen emaitzak hobetzeko.

Hobari sistemarik egongo da?

Etxe denentzat tasa bakarra egongo da. Era berean, Mankomunitateak onartzeko duen hiri-hondakin buruzko araudi berriak urtean betebeharreko mugimendu kopuru bat jasoko du. Mallabian, aurtan, apirilaren 1etik aurrera, gutxienerako 19 erabilpen egin behar dira organikoaren ontzian, eta honekiko %35 gutxiago errefusaren ontzian. Zehaztu gabe dago zein neurri hartuko den hori betetzen ez denean.

Urtarriletik martxan dira hondakin gaikako bilketarako itxitura elektronikoa duten edukiontziak Mallabian, eta herriguneko biztan-

Antzinako erara arto-hostoekin alfonbrak egiten erakutsiko du Lola Altolagirrek Iturri Kultur Etxean

Elorrioko Eixu artisau elkarteak antolatu duen hiru orduko ikastaroa 10:00etan hasi eta 13:00etan bukatuko da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Garai batean Euskal Herrian artoa produktu oso garrantzitsua izan zen, eta gaur egun ere lehengai preziatua da askorentzat. Esaterako, Lola Altolagirre Galarraga azpeitiarrak ezin hobeto zaintzen ditu arto-hostoak, horiekin alfonbrak egiten ditu eta. “Hasieran artoa ehundu eta lehengai honegaz esperimentatu bakarrik egiten nuen, baina duela urte batzuk Maria Pilar de Uria ezagutzeko aukera izan nuen, eta antzina arto-hostozko alfonbrak egiten zirela eta horiek nola egin erakutsi zidan”, azaldu du Altolagirrek.

Orduz geroztik, arto-hostoekin alfonbrak egiten eta ikastaroak emanez jendeari erakusten dabil Lola Altolagirre. Esaterako, zapatu honetan Eixu Elorrioko artisau elkarteak antolatuta, Iturri Kultur Etxean izango da Euskal Herrian antzina erabiltzen zuten teknika azaltzen. “Ahoz aho transmititutako teknika baten berri emango dut Elorrioren. Niri Maria Pilarrek erakutsi zidan, eta egun beste herritar batzuei erakusten dihardut”, esan du.

Galzorian zeuden arto-hostozko alfonbrak egiteak “misterio handirik” ez duela aitortu du azpeitiarrak. Hala ere, eskulan hauekin “konektatzea eta denbora hartzea” ezinbestekoa dela adierazi du. “Teknika erraza da. Hala ere, lan



Lola Altolagirrek eskainiko du tailerra. ARIMATEXTIL@GMAIL.COM

txukunak egiteko eta alfonbrak egiten jarraitzeko ezinbestekoa da eskulanekin eta arto-hostoekin konektatzea”, dio.

Materialaren garrantzia

Horrez gain, “lan txukunak” egiteko, material egokia izatea ezinbestekoa dela eta material hori lortzeko aurrez lan egin behar dela

jakinarazi du Altolagirrek. “Esaterako, nik udazkenean batzen ditut hostoak. Heze badaude, lehortzen uzten ditut eta, azkenik, aukeraketa bat egiten dut”, adierazi du eskulangileak.

Azpeitiarraren hitzetan, erdi tamainakoak eta artoaren barruko aldean daudenak dira alfonbrak egiteko historik aproposenak.

“Gainera, nire ustez, bigunegiak ez dira onak, ezta kanpoan dauden lehorrenak ere”, esan du.

Bestalde, artoa dagoen bitartean, Euskal Herriko antzinako artisauak alfonbrak egiteko erabiltzen zuten teknika hau interesa duenari transmititzen jarraitzeko prest dagoela aitortu du Lola Altolagirrek.

Elorriarrek herri kirolak egiteko aukera izango dute, domekan, herriko plazan

Udalak ‘Elorrio Osasuntsua’ programaren baitan antolatu du bigarren jarduera hau

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herritarren artean kirola sustatzeko asmoz, Elorrioko Udalak ‘Elorrio Osasuntsua’ ekimena jarri zuen martxan urtarrilean. Udana bitartean, elorriarrek hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute hi-

lero. Esaterako, domeka honetan herri kirolak egiteko aukera izango dute, 11:00etan, herriko plazan; euria eginez gero, erabilera anitzeko pabilioian egingo dute ‘Elorrio Osasuntsua’ programako bigarren jarduera hau.

Elorrioko Udalak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, plazan herri kirolak egiteko gune bat egokituko dute eta, bertan, hainbat joko eta kirolen jatorria ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Horrez gain, elorriarrek kirol hauek

“modu dibertigarri” batean probatzeko aukera izango dutela adierazi du Dani Palacios kirol zinegotziak.

Ekintza hauek adin guztietara zuzenduta daudela nabarmendu dute antolatzaileek, eta familia guztiak gonbidatu dituzte jarduerara hauetan parte hartu dezaten.

Elorrioko plazan herri kirolez gozatzeko aukera egongo da otsailaren 18an, 11:00etan

Ariketa, modu ludikoan

Bestalde, Elorrioko Udalak udara bitartean antolatu dituen ekintza hauetan ariketa fisikoa modu osasuntsu eta ludiko baten bitartez sustatzea dutela helburu adierazi du Palaciossek. “Kirol jarduera ikuspuntu ludiko batetik egiteak norbere osasuna hobetzeko, ingurukoekin gozatzeko eta beste pertsona batzuekin harremanak sendotzeko balio du”, bukatu du zinegotziak.



11:00etan hasiko da jarduera.

Ruben Garate gogoratuko dute zapatuan egingo duten ekitaldian

OTXANDIO • J.D.

Martitzenean 18 urte bete ziren Ruben Garate ‘Anselmo’ hil zela. Madrilgo kartzelan zegoen lagun bat bisitatu ostean, Euskal Herrira bueltan izandako auto istripuan hil zen otxandiarra, 26 urte zituela. Zapatuan, 13:45ean, ekitaldi bat egingo dute bera gogoratzeko. Otxandion Elixosten dagoen Garateren irudiaren ondoan plaka bat jarriko dute.

Otsail hasieran, dispertsioa salatzen duen testu bat onartu zuen udaleko udalbatzarrak. Testuan “aho batez” aldarrikatu dute “indarkeria politikoaren biktima guztiek aitortuak izateko eta egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko duten eskubidea”. Horregatik, Garateren memoria “aitortu eta berreskuratu” gura dute, “elkartasunaren ikur eta euskal presoak urruntzeko espetxe politikak eragindako biktima gisa”. Testuan zehazten dutenez, 16 euskal herritar hil dira sakabanaketak eragindako istripuen ondorioz.

Putzu septiko berriak jartzea eta daudenak berriztatzea sustatu gura du udalak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak diru-laguntzak arautuko dituen ordenantza lantzen dabil, baserrietan putzu septiko berriak jartzeko eta badaudenak berriztatzeko. Martxorako izan gura dute prest ordenantza berria, udalbatzarrak onartu dezan. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez,

Putzu septikoak garbitzeko diru-laguntzak arautuko dituen ordenantza ere landu gura dute udal arduradunek

baserri inguruetan ez dute aukerarik herriko saneamendu sarera lotzeko. Beraz, putzu septikoak ondo mantentzeko laguntzak nola bideratu aztertzen ibili dira udal arduradunak.

Putzu septikoak garbitzeko diru-laguntzak ere bideratu gura dituzte eta, horretarako, araudia ere landu dute. Hori ere martxoko udalbatzarrean aztertzea gura dute.

“Elurra kentzen baino, gatza botatzen ibili gara aurten, izotza prebenitzeko”

Elurra egiten duenean, Abadiñoako hainbat auzobide garbitzen ditu Ibon Lasuen gazteak bere traktoreagaz

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Elurra egiten duenean, etxean gelditzeko aholkuak ez du balio Ibon Lasuen Arabiourrutiaentzat (Abadiño, 1990). Hirugarren urtez, Abadiñoako hainbat auzobide garbitzeko ardura du elurra denean. Gatza botatzen ere aritzen da.

Elurrari buruz berba asko egiten ari gara aurten. Traktoreagaz lan handia izan duzu?

Hemen ez du elur askorik egin. Elurra kentzen baino, gatza botatzen ibili gara, izotza prebenitzeko.

Abadiñon, zein gunetan diharduzu elurra kentzen?

Bide bazterreko garbiketak egiten dituen enpresak elurra ere kentzen du herrian. Sarritan, baina, elurra egiten duenean, alde guztietan egiten du, eta ez dira leku guztietara heltzen. Horregatik eskaini zidaten zonalde batzuetan elurra kentzeaz neu arduratzea. Gaztelua, Irazola, Muntzarazko kale bat, Gorabiderako bidea eta Ostendi baserrirako bidea Gerediagan. Aurten, gehien bat, gatza botatzen ibili gara.



Ibon Lasuen bere traktoreagaz, Gazteluko baserrian.

“

Azarotik apirilera izaten da. Tarte horretan traktorea beti gertu izan behar dut ”

Lan honetan zerura begira bizi beharko duzue. Beti prest egon beharko duzu.

Lan honetan, irteteko moduan egon behar duzu beti. Adibidez, niri eskiatzea gustatzen zait, baina ezin dut edonoiz bidaiatu. Joan behar dudanean ziurtatu egin behar dut hemen denbora ona egingo duela.

Edozein momentutan dei zaitzakete lanerako?

Bai. Lehengo egunean 5:00etan deitu zidaten udaletxetik. Beraz, traktorea arrankatu eta lanera joan aurretik irten nintzen. Azarotik apirilera izaten da. Tarte horretan traktorea beti gertu izan behar dut.

Zelan hasi zinen lan honetan?

Orain lau urte elur asko egin zuen. Ama etxean zegoen, elurrarengatik irten ezinik, ogia ere erosi barik. Amak esan zidan: “Ibon, kendu elurra, ogi barik egun bian ezin gara egon eta”. Traktorearen palagaz kendu nuen elurra, gure etxetik bideraino. Ondoren, alkateak deitu zidan. Eman nien zerbitzua gustatu zitzaien-edo, eta, harrezkero, honetan nabil. Konturatu ziren elurra kentzen jarduten duen enpresaz gain, beste traktore baten premia zegoela. Baina, ez da lan finkoa.

“

Beste udal batzuek ere deitu didate, baina Abadiñoagaz dut konpromisoa”

Herri askotan, batez ere auzo-bideetan dituzte arazoak elurragaz.

Bai, eta beste udal batzuek ere deitu didate zerbitzua emateko, baina Abadiñoako Udalgaz dut konpromisoa.

Estresa ere izango duzu premia dagoenean alde guztietara heltzeko.

Bai, beharrezkoa dagoenean denek gura dute euren ingurutik pasatzea, eta ni ezin naiz bost lekutan aldi berean egon. Gainera, traktorea eduki arren, errepidean kontuz ibili beharra dago elurragaz.

Gazte ekintzaileek Geu Be elkarteari emango dizkiote Behargintzako ikastaroan egindako sormen lanak

Lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten gazteei begira garatu dute ‘Txertatu Merkatuan’ programa, bigarrenez

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoko Behargintza zerbitzuak bigarrenez garatu du Txertatu Merkatuan izeneko programa, lan munduan sartzeko zailtasunak dituztenei laguntzeko asmoz. Hainbat gaztek parte hartu dute bigarren edizio honetan,

eta gaur eguerdian emango diote amaiera, Geu Beren egoitzan egindako ekitaldi batez. Izan ere, gazteek ikastaroan egindako sormen lanak Geu Be elkarteari eskainiko dizkiote.

Ikastaroan zehar, lan munduko errealitatera gerturatzeko prak-

tikak ezagutu dituzte aurtengo ikasleek. Esaterako, fikziozko kooperatiba bat sortu dute. Materialak berrerabiltzeko tailer bat ere eduki dute, eta bertan birziklatutako produktuekin sortu dituzte Geu Beri emandako opariak. Loreontziak, baldak, jolasak eta atsedenerako

produktuak izan dira asmatutakoak, besteak beste.

Elkarteekin hartu-emanak

Behargintzako ikastaroak iraundako hilabete hauetan zehar, Durangaldeko elkarte eta entitate

Birziklatutako produktuekin sortu dituzte Geu Beri emandako opariak

ugari ezagutzeko eta eurekin hartu-emanak sortzeko aukera eduki dute gazteek. Horrelako esperientzia batean ezagutu zuten Geu Be, eta ikastaroa amaitu denean, euren lanak haiei ematea erabaki dute. Gaur eguerdian egingo dute dohaintza ekitaldia.

Behar bereziak edo aniztasun funtzionala duten hainbat lagunen eta euren familien elkarte da Geu Be. Seme-alabei aisialdi eskaintza ematea eta gizartean integratzea da euren helburua. Gaia sozializatzen ere egiten dute lan.

ANBOTOn argazki lehiaketan, asteburu-pasa irabazteko aukera

DURANGALDEA • M.O.

Inauteriak ospatzen ibili gara egunotan, mozorroak jantzita beste norbaiten paperean sartzeko jolasean. Argazki elegante eta xebleak jasotzeko asmoz, argazki lehiaketa antolatu du ANBOTOk, eta parte-hartzaile

Argazkiak webgunera igo behar dira, eta otsailaren 23ko 12:00ak arte dago horretarako epea

leek asteburu-pasa bat lortzeko aukera edukiko dute. Argazkiak www.anboto.org webgunera igo behar dira, eta otsailaren 23ko 12:00ak arte dago horretarako epea emanda. Hortik aurrera, igotako argazki guztiak bozkatzeko fase bat hasiko da, martxoaren 2ra bitartean. Botorik gehien jasotzen duen argazkiaren egileak irabaziko du saria. Martxoaren 10ean emango da irabazlearen berri, webguneari eta astekariko edizioaren bitartez.



Geu Be elkarteak Kuruztiagako Garai jauregian dauka egoitza.



Hareek denporak!

Elorrioko Gaztetxearen historia hiru hamarkadatan

Herri bat gaztetxe bat. Horixe zioten Elorrioko Gaztetxearen sortzaileek orain 30 urte. Gaztetxearen sorrerako urteak gogorak izan ziren maila politiko eta sozialean. 1991-1992. urteen artean itxita egon zen sei hilabetez, drogen kontsumoaren eta jende faltaren eraginez. Baina, hiru hamarkadako ibilbidean, arazo eta oztopen gainetik, Gaztetxea bizirik mantendu dute. Belaunaldiz belaunaldi, alter-

natiba sozial eta kultural legeztun funtzionatu du. Gaztetxeko gaur egungo kideek sasoi berri baten aurrean daudela diote. Ildo horretatik, hausnarketa abiatu zuten, iaz. “Egun gazteek ez dute Gaztetxea erreferente moduan ikusten, eta beraien toki bat dela erakutsi gura diegu”, diote antolatzaileek. Zapatuko urteurren jaiko ekitaldietara herri osoa gonbidatu dute. Erakusketa ere antolatuko dute. J.G.

Sei hankako mahaia

Goiztidi
Diaz Basterra
EAJ



Egia, askoren erregaria!

Beti esan da etorkizuna eraiki egin behar dela. Baina eraikuntza patxadaz egin behar da, durangarrek halan merezi dutelako. Honela, badugu tren lurperatuta, txukun Benita Uribarrena parkea, elegante udal liburutegia eta berriztuta San Fausto auzunea, besteak beste.

Durangarrek etorkizun ona merezi dute, eta ez oker da goen zerbait. Horretara, ezinbestekoa da gure uria okertzen duena ezabatzea. Batzuegatik balitz, eraikin zahar eta zinkieriaz inguratuta biziko ginatke. Badirudi halan daudela eroso; agian, horregatik, beraiek izan dira askotan gure uriko hormak karteletz estali dituzten lehenak.

Baina durangarrek etorkizun on bat merezi dute, ez dute merezi EH Bildutik eskaintzen zaien Durango txapuzero bat. Ezaguna da zein den beraien estiloa; badakigu, bai, Pepe Gotera eta Otilioren dizipuluak direla, baina gure uriak ez du hori merezi.

Gure uriak zentzuzko etorkizuna merezi du, proiektu egokiez hornitua. Ziur nago denok eskertuko ditugula Durango hobetuko duten proiektuak. Batzuek etorkizunean Durango garbi eta zuzen bat nahi dugulako eta beste batzuk beraien hileroko show-rako gaiak behar dituztelako. Antzeman dezaket zein izango den hurrengo saioko gaia, bost puxtarri asmatzen duenari!

Tira, jakina da batzuek ez dutela inoiz gauza asko gogoko izango, batez ere lana edozein egiteko ohitura dutelako. Baina etorkizunera joateak heldutasuna garatzea darama atxekita. Durangok aurrera egin behar du, herritarrek etorkizun garbia eta zuzena merezi dute.

Durangoaldea asteen

Karmengo Ama ikastetxeko gazteek saria jaso dute Euskadiko First Lego txapelketan

Zornotza | Zornotzako ikastetxeko gaztetxoek osatutako taldeak hirugarren saria irabazi du Euskadiko First Lego txapelketan. Innobasque-k antolatzen duen First Lego Ligak gazteen artean zientziarako zaletasuna piztea du helburu. Euskadiko finala Gasteizko Europa Jauregian jokatu zuten joan zen asteburuan. Bertan, Karmengo Ama ikastetxeko taldea izan zen nabarmendu zen taldeetako bat.

Goieta tabernaren idi pareak irabazi du aurtengo Abadiñoako San Blas Saria

Abadiño | Astelehen gauean idi proba txapelketan erabaki zituzten San Blaseta irabazleak. Goieta tabernaren idi pareak irabazi du 2018ko San Blas Saria (52 untza 3/4 eta 2,58 m). Bigarren, Kamiñoako jatetxea sailkatu da. Bestalde, San Blaseta Sarian markarik onenak egindako lehenengo sei idi pareekin txapelketa antolatu dute Abadiñoan, otsailaren 24rako.

Mikel Garaizabal somelier elorriarrak zabaldu du ardo uzta berriaren sasoia

Elorrio | Ardo uzta berriaren sasoia zabaldu zuten zapatuan Lapuebla de Labarcan, eta Mikel Garaizabal somelier elorriarra izan zen pregoilari. “Euskal Herrian munduko lurralderik onenetako bat dugu ardoa egiteko, Arabako Errioxa, eta hori argi eduki behar dugu”, esan dio Garaizabalek ANBOTOrri. Bestalde, ardo neurrian edan behar dela esan du Garaizabalek, baina ardoak pertsonen “arima indartzeko” duen balioa ere nabarmendu gura izan du.



Udal gobernuak “abadiñoarren zati handi bat alboratzen” duela salatu du EH Bilduk

Abadiño | Azken bi legegintzaldietan EH Bilduren zinegotzi izandakoek prentsaurrekoa eskaini zuten, joan zen egunean Txanporta Kultur Etxean. Bertan, “bazterkeria eta errespetu falta” salatu zituzten, eta udal gobernuari jarrera aldatzeko eskatu zioten.

Mikel Urrutia zinegotziaren berbetan, udal gobernuak gehiengoan gobernatzen duenez, “EH Bilduk ordezkatzeko dituen herritarrekiko jarrera baztertzalea eta errespeturik gabekoa” da. Bestalde, udal gobernuari hausnartzeko deia egin zioten agerraldian. “Beraiei dagokie hurbilketa egitea, eta hausnartzea: sektore bat isilik edukita eraiki gura dute herria?”, galdetu zuten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOrri irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

bertako
igogailuak | ascensores
Igogailuen mantentze-lanak

LARRIALDI TELEFONOA DOAN
www.bertako.eus
info@bertako.eus
946 52 39 35

24 orduko asistentzia abisu guztientzat 
Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**

Euskarazko zerbitzua



30 urte

URTEURREN JAIA
ELORRIO :: Otsailak 17

Elorrioko gaztetxearen urteurrena

Otsailaren 17rako, egun osoko egitaraua antolatu dute Elorrioko gaztetxean. Serigrafia, grafiti eta akroyoga tailerrekin emango diote hasiera egunari. Ostean, herri kirolak eta bazkaria egongo dira, besteak beste.

“Herritar guztiei dei egiten diegu ekintzetara eta bazkarira etorri daitezten”, esan dute. Iluntzerako hainbat kontzertu antolatu dituzte. Bestalde, Gaztetxearen 30 urte hauek gogoratzeko, otsailaren 15etik 28ra arte erakusketa



Berbaldia Chillidaren 'Oihartzunak' erakusketaren baitan

HITZALDIA | Eduardo Chillidaren *Oihartzunak* erakusketaren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte Durangoko Arte eta Historiaren museoan. Dato-

ren otsailaren 22an, 19:00etan, Emma Lopez Bahutek hitzaldia eskainiko du; Lopez Bahute arkitektoa, doktorea eta Coruña (Galizia) Arkitektura Goi Esko-

lako irakaslea da. Hitzaldiaren izenburua “Chillida. Resonancias en arquitectura” da. Eduardo Chillidaren *Oihartzunak* erakusketagaz ireki ditu ateak berriro Durangoko Arte eta Historia museoak. Artista donostiarraren 27 obra erakusten dira bertan, eta ziklo honen baitan bestelako hitzaldi eta ekimenak ere egin izan dira. Hitzaldi hauek doakoak dira.

Otsailaren 16an

ELORRIO emanaldia ‘Erreka Mari’ 4-8 urte bitarteko umeentzako ikuskizuna, 17:30ean, San Agustingo sarreran, Arriolan.

DURANGO solasaldia Ana Malagonen ‘Lasai, ez da ezer gertatzen’ liburuari buruzko solasaldia, 18:00etan, Andragunean.

DURANGO ipuin kontaketa ‘Cuando la mujer es su palabra’ helduentzako ipuin kontaketa Charo Jaularren eskutik. 19:00etan, Udal Bibliotekan.

DURANGO aurkezpena “Eusklabo Alaiak” eleberri grafikoaren mintzaldi ilustratua, 19:00etan, Hitz liburudendan.

DURANGO emanaldia “Mendiak hurbilduz” jardunaldietan ‘Un pas mes’ (Alaska), Silvia Vidalen eskutik. Ostean film laburren lehiaketako proiektzioak eta sari banaketa, 19:00etan, Plateruenean.

ZORNOTZA antzerkia “Alicia después de Alicia” antzezlan, Kabiaren eskutik. 20:15ean, Zornotza aretoan

ELORRIO antzerkia Alberto Arteta Quintet taldearen kontzertua. 20:30ean, Ateneon

Otsailaren 17an

ELORRIO ikastaroa Arto-hostoez alfonbrak egiten ikasteko tailerra, Eixu artisau elkartearen eskutik, 10:00etan, Iturrin.

DURANGO deialdia Auzolana sukaldea eraikitzeko, 10:00etan, Sorginolan.



antolatu dutela jakite-
ra eman dute. Gainera,
ekainean egun musi-
katua antolatuko dute,
uztailean gazte jaia, eta
irailean zenbait ekin-
tza antolatuko dituzte
jaietan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Euskaraz eta feminismoaz Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel

BERBALDIA | Durangoko Bil-
gune Feministak eta Euskal
Herrian Euskarazek berbaldia
antolatu dute elkarlanean,
otsailaren 22rako. 19:00etan
izango da, Plateruenean. Kaze-
tariak eta antropologoak dira
emakume biak, eta euren la-

nen artean euskarari eta femi-
nismoari lotutako ikerketak
garatu izan dituzte.

*Euskara eta feminismoa bidai-
de izenburupean garatuko da
tertulia. Arlo biak jorratuta,
batak bestetik jaso dezakeen
ekarpenaz hausnartuko dute.*

DURANGO egitasmoa
Jolasaren txokoa: haur
literatura (izen-ematea
Berbaron), 11:00etan,
Plateruenean.

ELORRIO urteurren jaia
Umeen txokoa 10:30ean,
karpan, **harrera ekitaldia**
12:45ean, gaztetxean,
Bazkaria 14:45ean,
EECn, **Kontzertuak: Aiora**
eta Piti (Zea Mays),
Lander eta Kimetz (Lor),
Nogen, La Basu, Txapito
Guzman eta Ibarrako
Langostinuek, 20:00etan,
karpan.

BERRIZ musika
Lukiek taldearen
kontzertua 360 graduko
formatuan, 20:00etan,
Kultur Etxean.

DURANGO musika
Shinova eta Kitai
taldeen kontzertua,
21:30ean, Plateruenean.

Otsailaren 18an

ELORRIO ikastaroa
Herri kirolak, jarduera
fisikoa sustatzeko
ekimenak, 11:00etan,
plazan.

ELORRIO antzerkia
'Mendian ibiltari.
La enana naranja'
umeentzako antzerkia,
17:00etan, Arriolan.

DURANGO jaia
'Torrijaldia 2018'
aratuste erromeria,
18:00etan, Plateruenean.

DURANGO jaia
'Patxistein doktorea'
ikuskizuna Txirri, Mirri
eta Txiribitonegaz,
18:00etan, San Agustin
kulturgunean.

Otsailaren 22an

ELORRIO aurkezpena
'Euzkadi S.A.' liburua
aurkezpena Ahoztar
Zelaietaren eskutik,
18:30ean, gaztetxean.

Otsailaren 23an

ZALDIBAR ipuin
kontaketa
'The Far West'
ipuina, 17:30ean, udal
liburutegian.

Otsailaren
25ean

ELORRIO martxa
XIX. Mendi bizikleta
martxa (hiru ibilbide
egongo dira), 10:00etan,
plazatik.

Otsailaren
15etik 28ra

ELORRIO erakusketa
'Gaztetxeak 30 urte!'
erakusketa, 15ean
erakusketaren irekiera,
luntxa eta musika, Iturrin.

Otsailaren 2tik
25era

BERRIZ erakusketa
Xabier Alconero
Martinen 'Madrid
grabatuak' erakusketa,
asteburuetan ere zabalik,
Kultur Etxean.

Otsailaren 7tik
maiatzaren
30era

Otsaileko agenda



16	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" Ipuin kontalaria. Ana Galarraga "Bizitzaren laborategian" 18:00 5 urtetik gorakoak ZALDAI MENDI TALDEA- Otsailak 16,17 eta 18 Eski irteera (Formigal): Autobusa - Forfait 2 / 2 egunpentsio erdian / Izen ematea: zaldai@hotmail.com
	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 18:15 Emakumeen literatur tailerra
20	"DISLEXIA: IRAKURKETA ERRAZEKO KLUBA" 17:00 L.H. 3-4. mailak (8-10 urte) 18:00 L.H. 5-6. mailak (11-12 urte)
	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 10:00 - 11:00 Helduentzako XL kluba 18:00 - 20:00 Ingeleseko irakurketa kluba
22	"GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA" 17:00 "Memoriaren estimulazio tailerra" (Nagusien etxean)



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

Thi Mai
barikua 16: 22:00
domeka 18: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **La forma del agua**
barikua 16: 19:30/22:00
zapateria 17: 16:45/19:30/22:30
domeka 18: 16:30/19:00/21:30
astelehena 19: 18:30/21:00
martitzena 20: 20:00
eguaztana 21: 20:00

• **Black Panther**
barikua 16: 19:30/22:00
zapateria 17: 16:45/19:30/22:30
domeka 18: 17:00/19:45
astelehena 19: 18:30/21:00
martitzena 20: 20:00
eguaztana 21: 20:00

• **Cuando dejes de quererme**
barikua 16: 19:30/22:00
zapateria 17: 19:30/22:30
domeka 18: 19:00/21:30
astelehena 19: 18:30/21:00
martitzena 20: 20:00
eguaztana 21: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Los archivos del Pentágon**
zapateria 17: 22:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Cuando dejes de que-
rerme**
zapateria 17: 19:30/22:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:15

• **La abeja Maya 2: los jue-
gos de la miel (euskaraz)**
zapateria 17: 17:00

BERRIZ ikastaroa
Emakumeen jabekuntza
eskolaren baitan,
Mindfulness ikastaroa,
12 urtetik gorako
emakume berriztarrentzat,
eguaztentean 16:30-18:30
bitartean, Kultur Etxean.

Otsailaren 16tik
18ra

DURANGALDEA irteera
Zaldai eta Asuntze
mendi taldeek eski
irteera antolatu dute,
(izena emateko azken
eguna, otsailaren 12a),
informazio gehiago www.zaldaimenditaldea.org
helbidean.

Otsailean eta
martxoan

DURANGO erakusketa
Alaitz Muroren 'Seafun'
erakusketa, Artekan.

Otsailaren 2tik
28ra

ZORNOTZA erakusketa
Jose Enrike Urrutia
Kapeauren 'Argiaren
paisaiak' erakusketa,
Zelaieta Zentroan.

“Konposatzen, jotzen eta beharrean; hori da hamarkada ospatzeko modurik onena”

Hiru urteren ostean, Durangora itzuliko da Shinova; ‘Volver’ diskoaren aretoetako birako azkenengo kontzertua izango da



Gabriel de la Rosa
Shinova taldeko
abeslaria
Berriz | 1983

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Birako gainontzeko kontzertuetan legez, jendez lepo egongo da bihar Plateruena Shinovari harrera egiteko. Egun, Daniel del Valle, Erlantz Prietok, Ander Cabellok, Joshua Froufrok eta Gabriel de la Rosak osatzen dute Durangaldeko taldea. Azken honegaz egin du berba ANBOTOK.

Bihar Plateruenean agurtuko duzue ‘Volver’ biraren antzokietako zatia. Gogotsu etxera itzultzeko? Itzultzeko irrikan gaude, hiru urte baitira Durangon azkenekoz jo genuela. Urte hau oso polita eta emankorra izan da, eta aretoetako bira hau Durangon amaitzea baino modu hoberik ez zaigu okurrizten. **Zerbait berezia prestatu duzue kontzertu honetarako?**

Eguna bera oso berezia izango da guretzat. Izan ere, etxean, Plateruenean, gure jendearen aurrean aritzea oso berezia da. Ikuskizunaren

“**Jaialdiak erakusleihen bikainak dira, ostean, aretoetan, jendearen babesa eduki ahal izateko**”

aldetik, gauza bereziak prestatu ditugu. Ez dut espoilerrik egingo, baina intentsitate handiko kontzertua izango dela aurreratu dezaket.

Joy Eslava [Madril] areto garrantzitsua bete duzue oraintsu. Zein sentazio gelditu zaizue?

Oso ondo joan da bira. Beharrezkoa genuen esperientzia bat eman digula uste dut, eta, aldi berean, ikastaldi bat izan da. Joy Eslavako kontzertua ez da ezeren amaiera, baina guretzat opari bat da. Ahaztuko ez dugun egun bat izan zen; ez dugu ahaztuko ez guk ezta Hontzakeko lagunek [Shinovagaz lan egiten duen agentzia] ere. Oraindik ere emozionatu egiten naiz argazkiak ikusterakoan.

Udan jaialdien txanda iritsiko da. Gogotsu? Zer nahiago duzu, aretoan aritu ala festivalean?

‘Volver’ lanagaz jaialdietan egongo gara, bai. Kontzertu batzuk hitzartuta ditugu. Sare sozialetan iragartzen joango gara, gehiago itxi ahala. Uda osoa gora eta behera pasatuko dugu.

Ohiko galdera da aretoena eta jaialdiena; jendeak gurago du bata edo bestea, baina, gure kasuan, bateragarriak direla uste dugu. Are gehiago, osagarriak direla esango nuke. Gure kasuan, aretoetara gu ikustera etorri direnetako askok jaialdietan ezagutu gaituzte. Beste talde batzuk ikustera joan, eta

gure kontzertua entzun ostean, lotura edo *feedback* bat egon da, eta, hortik aurrera, guri jarraitzen hasi dira. Jaialdiak erakusleihen bikainak dira, ostean, aretoetan,

“**Joy Eslavako [Madril] kontzertua ez da ezeren amaiera, baina guretzat opari ahaztezin bat da**”

babesa edukitzeko.

Gero, ‘Volver’ diskoaren etapa itxiko duzue.

Jada lanean ari gara Mikel Santosegaz; gure teknikaria izateaz gainera, gure ekoizlea ere bada. Gure asmoa urte amaierarako edo datorren urte hasierarako prest edukitzea da. Abestietako batzuk amaituta daude, eta kontzerturen batean jo izan ditugu.

Urteekin garapen nabarmena izan duzue. Nolakoak izango dira abesti berriak?

Maiz errepikatu digute hori. Beti

saiatzen gara egin duguna baino urrutirago joaten. Gustuko dugu esperimentatzea, gauza berriak probatzea. Eta hori da urte honetan ikasi dugun gauzetako bat. Artistikoki ere oso urte intentsoa izan da, grina pizten diguten talde asko ezagutu ditugu, eta elementu berriak erabiltzen ikasi dugu beraiekin; gainera, musika asko entzun dugu.

“**Guretzat berezia izango da, gaur, Plateruenean, gure jendearen aurrean aritzea**”

“**Taldea nabarmen aldatu da urteotan; jende multzo honegaz, bilatzen genbiltzan egonkortasuna dugu**”

Oso pozik gaude, eta itxura oso ona dute abesti berriek.

Warner diskoetxeagaz kaleratuko duzue hau ere?

Ez digu axola multinazional bat izateak. Gogor egiten dugu lan bertako langile talde batez, asko babestu gaituzte, eta litekeena da hurrengo lana ere beraiekin kaleratzea.

Hirugarren diskoa izango da formazio beragaz. Aldaketa asko egin eta gero, hau izan da behin betikoa?

Taldea nabarmen aldatu da urteotan, kideen joan-etorriagaz. Orain, jende multzo honegaz, bilatzen genbiltzan egonkortasuna aurkitu dugu. Familia bat gara, egun osoa elkarregaz pasatzen dugulako.

2018an hamarkada beteko du Shinova taldeak. Zerbait berezia pentsatu duzue?

Konposatzen, jotzen eta beharrean jarraituko dugu, hori da hamarkada ospatzeko modurik onena.

‘Volver’-en jarraipena, atsedenerako tarterik barik

Disko berria izango dena esku artean izateko, urte amaierara edo 2019ko urte hasierara arte itxaron beharko dute zaleek. Urtea errepidean kontzertuz kontzertu igaro arren, inspiraziorako tarreak ere eduki dituzte Shinovako kideek, eta disko berrirako abesti batzuk amaituta dituztela aitortu du De la Rosak. “Askok mugitu gara azken urte honetan, eta, badakizu, gorputza mugitzen denean burua mugitzen da”. Bizipentean oinarritzen da abeslaria hi-

tzak idazterakoan, edota musika konposatzerakoan. “Bizi dituen emozioak transmititzen ditu artista batek. Gure kasuan, gure bizipenak abestien bidez adierazten ditugu”, esan du. Eskainitako kontzertuetan, bidelagun ugari izan du Durangaldeko taldeak, eta horrek ere eragina izan du konposizioak egiterakoan; izan ere, elementu berriak probatzeko lagungarria izan zaie partekatutako esperientzia hori guztia. Horrez gainera, Gabri de la Rosaren



ustetan, garrantzitsua da beharrean saiatua izatea. Eta entsegu lokalean lan asko egindakoak dira Shinovako kideak. “Batzuetan behartu egin behar da, baina inspirazioa abisatu barik agertzen da; iristen denean lanean harrapa zaitzala”.



Urmeneta, "Eusklabo Alaiak" eleberrigrafoaren aurkezpen batean.

“Eusklabo Alaiak” eleberrigrafikoa aurkeztuko du gaur Asisko Urmenetak Hitz liburu-dendan

Unai Iturriagak aurkeztuko du mintzaldi ilustratua; 19:00etan izango da aurkezpena, Hitz liburu-dendan

LITERATURA • A.M.

“Eusklabo Alaiak” eleberrigrafikoa Robinsonen eta Ostiralen istorioa kontatzen du Asisko Urmeneta marrazkilari nafarrak; euskaldunen egunerokoa kronika satiriko bilakatu du liburu honetan. Hainbat ustekeria zalantzan jarriko ditu artista nafarrak. Gainera, umorearen, marrazkiaren eta duda metodikoaren laguntzagaz. “Euskal Herria, txipia? Euskara hiz-

kuntzarik zaharrena da? Estaturik gabeko nazioa al gara? Zazpiak bat? *Irurac* bat? Bat ere ez?”, itauntzen dio irakurleari.

Kolonizazio istorio bat dakar Urmenetak argitaratutako azkeneko lanak Euskal Herrira, Bidasoako Intzura Handia uhartera, hain zuzen ere. Ez da kasualitatea, izan ere, munduko kondominio txikiena da, eta sei hilabetez Frantziako armadak kudeatzen du; urteko

gainontzeko sei hilabeteetan Espainiakoak kudeatzen du. Hain zuzen ere, parodia satiriko moduan deskribatzen du Urmenetak lan berri hau. Bertan, fikzioa eta historia uztartuko ditu. Robinson Crusoeren nobela oinarri hartuta, Euskal Herriaren parodia batez nahasten ditu gertakizunak. Tes-tuinguru horretan, Ostiralen eta Robinsonen solasaldi eta egunerokoak aletuko dira. Unai Iturriaga durangarrak aurkeztuko du Urmenetaren mintzaldia. Hitz liburu-dendan izango da, 19:00etan.

Osasun gida

anboto

Optometria
 PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
 11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
 48240 Berriz
 tel.: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
 PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
 Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
 DURANGO
ugatz@hotmail.es
 944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
 PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
 behea eskuma
 MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
 PSE: 57/16

pablo zubizarreta
 fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
 DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
 946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
 PSE: 155/17

HOBETU
 Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es
 T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
 P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
 PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
 Podologoa

AINHOA ELORZA
 Podologoa

NEREA RODRIGUEZ
 Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
 alteraziodermatologikoak
 eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
 946 203 630

Odontologia
 PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
 b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
 ETA ESPEZIALITATEAK
 08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
 DURANGO
 Tel.: 946 819 951
 Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
 PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 IMQ, PADI (umeen hortz programa)
 Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
 48200 DURANGO
 Tel.: 946 812 200

Estetika
 PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
 MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
 Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
 48200 - DURANGO
 Tel.: 946 810 387

Psikologia
 PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
 PSIKOLOGO KLINIKOAK
 PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
 Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Depresioa poesiaren bidez nola gainditu dakar Kabiaren azken lanak

Zornotza aretoan antzeztuko dute gaur 'Alicia después de Alicia' antzezlana, 20:15ean



Antzezlaneaneko une bat.

ANTZERTIA • A.M.

Depresioaren gai iluna klixerik erabili gabe jorratu gura izan dute Kabiako kideek *Alicia después de Alicia* antzezlanean. Poesiaren bidetik jotzeko, egileek aldaketak egin

Depresioaren gai iluna umorearen bidez jorratzea izan da Kabia taldearen helburua

dizkiote Lewis Carrolen *Aliceren* abenturak *Lurralde Miresgarrian* ipuin klasikoari. Horrela, abiapuntua Aliciak —biolinista eta protagonista— sufritzen duen krisia da. 40 urte dituela, ametsak eta errealitateak

talka egiten dute, eta protagonistak bere nahi eta kontraesanei buruz egingo duen hausnarketa jorratuko dute obran.

Antzezlaneaneko zuzendaria Borja Ruiz da, eta antzezleak Haizea Agila, Florentino Badiola, Karol Benito, Yolanda Bustillo, Maria Goiricelaya, Javier Liñera eta Juana Lor dira. Dramaturgiak Emilio Encabo arduratu da; ilustrazioez, Ane Pikaza; eta animazioez, Gheada.

Videomapping delako teknika erabili dute antzezleak eta Aliciaren mundua konektatzeko

Ercilla 2017 saria

Alicia después de Alicia lanagatik Ercilla saria jaso du Kabia antzerki taldeak. Honako hau bigarren Ercilla saria da konpainiarentzat. Lehenbizikoa *Decir lluvia y que llueva* lanagatik jaso zuen.

Euskal Herrian ez ezik, nazioartean ere antzeztu ditu obrak Kabiak, eta azken obra hau Durangon eskaini zuten iaz. *Alicia después de Alicia* antzezlanean videomapping delako teknika erabili dute, antzezleek Aliciaren mundu onirikoagaz konektatzeko.

Jose Enrike Urrutiaren 'Islak' erakusketa ikusgai Zornotzako Zelaieta Zentroan

Otsailaren 28ra arte egongo da ikusgai 'Islak'; 25 lanek osatzen dute bilduma



Urrutia, eskuman, erakusketaren inaugurazioan.

MARGOLARITZA • ARITZ MALDONADO

Jose Enrike Urrutiaren lanak bilduz dituen *Islak* erakusketa ikusgai dago Zornotzako Zelaieta zentroan. Azken urtean eginiko koadroen artean, 25 laneko aukeraketa batek osatzen du erakusketa. "Koadro errealistak daude, eta beste batzuk abstraktuagoak, baina natura da guztietan oinarria", azaldu du artistak. "Argitasuna aurkitzearen sentazio hori azaldu gura dut lanekin", gaineratu du. Obrarik handienek metro bateko zabalera

dute; beste batzuk, ostera, txikiagoak dira. "Baditut beste tamaina batzuetako lanak, baina erakusketa honetarako hauek moldatzen ziren egokien", azaldu du.

Zornotzako Zelaieta zentroan otsailaren 28ra bitartean egongo da ikusgai erakusketa. Ostean, sorta bereko lanak beste nonbait erakustea gustatuko litzaioke Urrutiari. "Bagabiltza zerbaite topatu guran, eta ate batzuk jo ditugu, baina oraindik ez dugu ezer itxi", esan du.

Erakusketa joan den otsailaren 8an inauguratu zen, lagun artean. Besteak beste, Ruper Ordorika musikaria egon zen bertan, eta baita Jose Julian Bakedano zinemagilea ere. Ordorikak abestu egin zuen, eta Bakedanoren eta Urrutiaren artean, idatzi bat irakurri zuten.

Geure Durungaldea

Libe Mimenza Castillo
Kazetaria



... eta urte askotarako!

Alemanian, Italian edota Holandan gazteek abiatutako okupazioaren bidetik iritsi ziren gaztetxeen erreferenteak Euskal Herrira 80ko hamarkadan. Banderatrapu bakarra nahiko ez, eta askorekin osatu zen aterpea. Okupazioa, autogestioa, elkartasuna, ekologia, internazionalismoa, euskara, feminismoa... eta egunez egun marraztu da ordutik piraten txalupako bela koloreztatu duen borroka berri bat. Mamuak badaki, korrontearen kontra baino, lur berrien defentsan diharduela ameslarion haizeak: gure bizitza askatzeko alternatiba kultural, sozial, politikoa eta kolektiboak garatzeko gune askea baita gaztetxea.

Gaur, Anderrek tomateak ekarriko ditu eta Leirek ortuan batutako tipulinak. Endika bere etxeko hozkailuan dituen solomo xerren bila joango da, eta Garik patatak dakartza gurasoen teilatupetik. Maddik posttrerako zer edo zer bilatu bitartean, Ametsek frijituko du otordua, eta azken orduan hurreratu denak egin beharko du harrikoa.

Horixe Elorrixoko gaztetxearen 30. urteurren festara iristeko formula. Nork beretik, eta elkarrekin, utopiak laztanduta ulertzeko ekarpen txikien handitasuna, kolektiboa osatzen duen norbanako bakoitzaren berezitasuna, eta ia antzemanekin diren uhinek eraginda sortzen diren olatuen eraldaketarako indarra.

Gora errebeldia, askatasuna eta eraldaketa!

Zorixonak Elorrixoko gaztetxeari!

Txirri, Mirri eta Txiribiton
2 urtetik aurrera
Otsailaren 18a,
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGORUDALA
Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

JOLASAREN TXOKOA
Otsailak 17 · 11:00etan
Haur literatura

SHINOVA
Otsailak 17 · 21:30etan
Kontzertua

EUSKARA ETA FEMINISMOA BIDAIDE
Otsailak 22 · 19:00etan
Hitza

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatebtxea@plateruena.net

“360 graduko formatu honek mesede egingo dio gure estiloari”

Lukiek hirukote mungiarrek kontzertua eskainiko du zapatuan, 360 graduko formatuan



Energiaz beteriko kontzertuak dira mungiarrenak

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Hainbat musika proiektutan dabiltzan hiru lagunek osatzen dute Lukiek. Zapatuan Berrizko Kultur Etxera eramango dute beraien proposamen gordina, 360 graduko formatuan. “Gure kontzertuetan zarata izaten da lehenbiziko elementua,

eta zarata horretatik melodia izpi batzuek borrokan egiten dute entzungarri izateko”, diote. Kontzertu sorta eskaini du dagoeneko hirukote mungiarrek, betiere “giro polita” sortzen den lekuetan joz, eta “presiorik barik”. “Bestelako proiektuak ditugunez, abentura honi

Kontzertu sorta eskaini du Lukiekek, Euskal Herrian zein kanpoan, DMA’s australiarrekin bat

ikuspuntu ezberdin bat eman gura izan diogu; jo ditugun kontzertu ia guztiak lagun artekoak izan dira”, azaldu dute. Errepideetan ezagututako beste taldeetako lagunekin antolatutako kontzertuak izan dira batzuk. 2016an, adibidez, DMA’s australiarrekin partekatu zuten oholza. Euskal Herritik irteteko aukera ere izan dute denbora honetan. Hala nola Leonera, Madrilera eta Tarragonara.

Josu Ximun (gitarra eta ahotsa), Christian Rodriguez (bateria) eta Antton Goikoetxea (baxua) modu natural batean hasi ziren musika sortzen. “Tabernan beti egoten gara musikaz berbetan, askotan aipatzen genuen taldea sortzeko aukera, eta begira”. Ximun Belako talde entzutetsuko kide ere bada.

Taldekideak gogotsu daude 360 graduko formatuan jotzeko; izan ere, inoiz ez dute horrelako formatuan kontzerturik eman. “Beti eduki dugu horrelako zerbait egiteko gogoia, hirurok elkarri adi; entsegu lokaleko formatuaren antza izango du”, azaldu dute. Guztiagaz, ikuskizun trinkoa eskainiko dute bizkaitarrek. “Gure estiloari mesede egingo diola uste dugu”, adierazi dute.

Split-a Cecilia Paynegaz

Agendak utzi ahala, kontzertuak eskaintzen ari da Lukiek. Horrez gainera, mungiarrek estudioa za-

paldu dute egunotan, lehenbiziko maketa izango dena grabatzeko. “Gogoa dugu behingoz zerbait erregistro musikal batean edukitzeko”, diote. Horrela, Cecilia Payne taldeagaz batera, diskoa *split* formatuan kaleratzeko asmoa dute. “Antzina-

Taldekideek bestelako proiektuak dituzte; Josu Ximunek, adibidez, Belakon ere jotzen du

“Hirurok elkarri adi, entsegu lokaleko formatuaren antza izango du kontzertuak”

ko formatu hori berreskuratu gura dugu; lau kanta talde bakoitzeko eta lau kanta aurpegi bakoitzeko”, azaldu dute. Cecilia Payne bizkaitarrek dira, eta udaberrian Elorrioko Ateneon egongo dira Sei Urte berriarekin batera. AteneON ekimenaren baitan izango da kontzertua, maiatzaren 19an, 22:30ean.

Elkartzeko zailtasunak izan arren, aurrera egiteko gogoz dardela azaldu dute mungiarrek. Bitartean, zuzenekoak jozen jarraituko du hirukoteak. “Guk jarritako eritimoan, lagun arteko abenturan”, argitu dute.

2018KO INAUTERIEKAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkia
anboto.org
helbidera, otsailaren
23a baino lehen.
Webgunean botorik gehien
duen argazkiaren egileak
asteburu-pasa bat
irabaziko du!

Lehiaketaren oinarriak
www.anboto.org webgunean



“Badatoz gazteak, baina sasoi batean gehiago agertzen ziren krosean”

Durango Kirol Taldeak azken urteetan izan dituen lorpenen parte da Ibon San Miguel korrikalari lekeitiarra

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Berba errazekoa eta solasaldirako atsegina da Ibon San Miguel. Ingeniari industrialak ogibidez, korrika egitea du zaletasunik gustukoena. Berak eta bere taldekideek Durango Kirol Taldea Euskadiko erreferente bihurtu dute krosean. Gizonetan denek garaitu gura izaten duten taldea bihurtu dira. Urte bitan segidan Euskadiko txapelketa taldeka irabazi ostean, joan zen asteburuan hirugarren amaitu zuten. Podiumak ez ditu asebate.

Pozik zaudete taldeko emaitzagaz? Eta zu, gustura geratu zinen zure errendimenduagaz?

Tira, nire postuagaz pozik nago, ez delako erraza aurreko postuetan amaitzea [15. sailkatu zen], baina ez ninduen erabat konforme utzi. Beti gura duzu gehiago. Horretarako entrenatzen gara. Lortutakoagaz konformatzen bazara, ez zara gehiagora helduko. Begira, bakarka badakit ezin dudala Euskadiko hiru onenen artean amaitu, eta taldeko saillapenetan ahalik eta ondoen geratzea da nire helburua. Eta ahalik eta ondoen geratzea txapeldun izatea da guretzat. Irabaztea zen gure helburua. Hirugarren amaitzea asko da, baina ezin gara konformatu. Aurtengoa abisu moduan hartu behar dugu; Gure buruari “kontuz, aurkariak ere indartsu dabilta eta”, esateko. Ez da erraza guk erakutsi izan dugun mailari eustea, eta aurtun konturatu gara.

Bizkaiko eta Euskadiko kros laburreko txapeldunak zarete. Garaipen biak taldeka lortu dituzue. Taldea helburu indibidualen gaintik jartzen duzue?

Ahalegin bat, sakrifizio bat, zeuretzat bakarrik egiten duzunean,

lortutako emaitza ere zeuretzat da bakarrik. Taldeko emaitza denean, aldiz, beste poztasun bat dago. Denak daude pozik, ez bat bakarrik. Berdin da lehenengo edo bosgarren amaitu duzun. Lorpen horretako parte zara. Lortutakoa zeure ekarpenari esker ere bada.

Talde batek taldeburu bat behar izaten du. Oier Ariznabarreta da zuena?

Dudarik barik. Bera da taldetik tiratzen duena eta beti animoak ematen dagoena. Umore ona jartzen du eta edozertarako prest dago beti. Gainera, aurrean ibiltzen da beti. Berdin da krosa bada, asfaltoa bada, duatloia bada... Makina bat da. Erreferente bat da guretzat.

Hurrengo asteburuan Espainiako kros txapelketan arituko zarete. Zer helburugaz zoazte?

Lasterketa denak serio hartzen ditugu, baina argi dago Espainiako txapelketan ezin dugula jarri helburu moduan aurreneko bosten artean sartzea. Guretzat parte hartzea bera sari bat da. Horregatik, asteburuan ez dugu lasterketa bakarrik izan gura buruan. Hau da, joan, lehiatu eta buelta. Barikuan joan eta hiria bisitatu gura dugu, elkarregaz barre batzuk egin... horretarako ere baliatu gura dugu asteburua. Azken batean, ez gara horretatik bizi, eta gozatzeko egiten dugu. Hori bai, korrika egiteko unea heltzen denean... topera!

Kontatu didatenez, furgonetan egiten dituzuen joan-etorriak dibertigarriak izaten dira.

Denok furgonetan sartuta, bidaia xebreak izaten dira. Konpainiak egiten du hori. Segun eta nogaz zauden, bidaiak aspergarriak edo dibertigarriak izan daitezke. Gureak



Ibon San Miguel Olabarriaga
Durango Kirol Taldeko korrikalaria
Lekeitio | 1987

jai bat izaten dira. Sarritan txanda eskatu behar izaten dugu berba egiteko. Asteburuko unerik onenetakoa izaten da.

Horrelako uneez garaipenek besteko balioa dute?

Bai. Nire kuadrilla Lekeitiokoa da, baina Durangon horrelako lagunak ez banu, seguruenik ez nintzen hemen biziko. Hartu-eman oso ona dugu. Asteburuetan elkartzen gara, baita taldean ez dauden beste atleta batzuekin ere. Parranda batzuk ere egin ditugu. Atleten arteko hartu-eman baina gehiago da, lagunak gara.

Zuen taldean, nor da denetatik umoretsuena?

Ni nahiko saltseroa naiz. Umorerik barik tristeegi ikusten dut bizitza. Oier ere saltseroa da, Javier Fontaneda ere bai...

Nor da mahai gainean kolpe bat eman behar denean ematen duena?

Oier bera... eta baita Ekaitz [Kortazar] ere. Burua zentratuta du,

gauzak ondo aztertzeke eta hausnartzeko ahalmena du.

Oraindik adin ona duzue, baina denborak konturatu barik joaten da. Erreleborik ikusten duzue?

Gure artean askotan komentatu dugun gaia da. Bizkaiko txapelketan aurrean ibiltzen hasi ginen urteak gogoratzen ditugu. Normalean, 23 urteagaz egurren ematen egon behar duzu. Eta, normalean, 30 urtetik gorakoek konturatzen hasi behar lukete gazteak ate-joka eta errelebo eske datozela. Baina ez dugu horrelakorik ikusten krosean. Urteak joan arren, aurrean eta maila onean jarraitzen dugula ikusten dugu. Maila handiko gazte batzuk badaude, Txomin Marañon kasu, baina ez dira hainbeste ere. Gutako batzuk beterekoen mailakoen adina izango dugu datorren urtean, eta zelan da posible aurrean egotea? Badatoz gazteak, baina sasoi batean gehiago agertzen ziren krosean.

Kros denboraldia amaitzeaz dago. Zer asmo duzu osterako?

Lehen dena planifikatzen nuen, baina, orain, hiru-lau urtetik hona, unean-unean erabakitzen dut non parte hartu. Aste biren barruan dauden lasterketei begiratzen diet, ez haratago. Gustuko karrerak egiten eta gozatzeko saiatzen naiz: laz Zegama-Aizkorri ere egin nuen.

Zelan animatu zinen Zegama-Aizkorri egitera?

Orain urte bi lagun batez lasterketa ikustera joan nintzen. A ze jendetza! Sekula ez dut horrelakorik ikusi mendi lasterketa batean: denak animatzen, berdin da lehenengo edo azkenengo bazoaz. Hunkigarria. Orduan pentsatu nuen parte hartzen saiatu behar nuela. Gogoan dut denok furgone-

tan gindoazen batean irten zela parte-hartzaileen zerranda, eta han nengoen ni. Orduan denak barreka eta adarra jotzen hasi ziren. Nik, berriz, dardaraka egin nuen bide osoa.

Zelan irten zitzaizun?

Ondo. Lasterketako alderdi biak bizi izan nituen. Lehenengotan, pozik, fresko eta gogotsu, eta, ondoren, sufritzen ere bai. Sancti Spiriturako igoera itzela izan zen. Behetik jendearen oihuak entzuten nituen. Igoera hasi aurretik zegoen hornidura puntuan geratu egin nintzen, indarrak hartzeko eta igoera topera egiteko. Sekula ez dut horrelakorik bizi izan lasterketa batean.

“**Gurea ez da atleten arteko hartu-eman bat, lagun arteko baizik. Kuadrilla batenaren modukoa**”

‘Lekeitxar’ batek kresal usainaren eta itsasoaren falta sumatzen du Durangon?

Denboraldi bat Lekeitiora joan barik nagoenean hango lagunak esaten didate itsasoko ura oparitutako didatela poto batean, kresal usaina hartzeko. Azken batean, han egin dut nire bizitza, eta lotura berezia dut. Nire korrika ibilbideko azken urtea herriko Tximista klubean egin gura nuke. Han jubilatuko naiz.



Durango Kirol Taldeko Ibon San Miguel —ezkerrean— eta Iñigo Olano —erdian— korrikalariak, krosekoko proba batean. Felix Sanchez.

Buruz buruko lehia murgildu dira ZornotzaST eta Igoalatorio Cantabria

Aurkariak bost garaipenera dituzte talde biek eta multzoko lehen postua euren artean dago



Asteburuan Santurtziren kantxa bisitatuko du Mikel Garitaonandiak gidatutako taldeak. ZORNOTZA

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Zornotza ST eta Igoalatorio Cantabria buruz buruko lehia batean murgilduta daude EBA mailan euren multzoko txapelketa erabakitzeke. Denboraldi osoan partidu bana bakarrik galduta, urruti ikusten dituzte aurkariak: bost garaipenera edo haratago. Hamar partiduren faltan euren bien artean dago lehen postua. Eta ematen duena

baino garrantzi handiagoa du postu horrek. Beste multzoko liderraren kontra jokatzeko aukera eskainiko liekete eta, hura menderatuz gero, igoera fasea etxean, zaleen aurrean, jokatzeko eskubidea irabaziko lukete. Denboraldiko partidurik inportanteenak marea berdearen animoek babestuta jokatzeko, horixe du jokoan ZornotzaSTk liga erregularra amaitu artean.

Martxoaren 17a gorriz borobilduta izango dute egutegian; elkarren kontra jokatu dute

Martxoaren 17a talde biek egutegian gorriz borobilduta izango duten eguna da. Elkarren kontra jokatu dute. Saikapenean duten

berdintasuna apurtzeko aukera bakarra huraxe izango dela ematen du. Baina, bitartean, zornotzarrak ezin dira deskuidatu, eta etxeko lanak egiten jarraitu behar dute.

Kabongoren ekarpena

Bide horretan euren ekarpena egiteko heldu dira Zornotzara Ander Garcia eta Myck Kabongo neguko merkatuan. Garcia aurretik ere ibili da Zornotzan. Kabongok, aldiz, taldeari asko emateko kapaz dela erakutsi du. Kanadako naziotasuna

Lider geratzen denak igoera fasea etxean antolatzeke aukerakin jarraituko du

Hamar jardunaldi falta dira liga erregularra amaitzeko eta igoera faseei ekiteko

duen joko antolatzaile kongotarrak erronka berrien aurrean kokiltzen ez den horietakoa dela erakutsi du. Esaterako, Zornotzagaz jokatu zuen aurreneko neurketan baloraziorik altuena izan zuen jokalaria izan zen.

Zapatuan, 18:45ean, Santurtziren kantxa bisitatuko du Zornotzak. Talde arriskutsua da. Hirugarren daude eta aldea murrizteko azken aukeratarikoa dena baliatu gura izango dute.

Adituaren txokoa

Koikili Lertxundi
Del Campo
Futbolari ohia eta
enpresaria



Danok Bat!

Aurreko kolaborazioari izena ematen zion izenburuari jarraituz, dagoeneko hiru hila-bete igaro dira; beraz, oro har, gizartean eta, bereziki, futbol profesionalean gertakari dezentente pasatzeko beste denbora.

Eta hori da, hain zuzen, Athletici gertatu zaiona, gora behera asko, alegia. Ligan partida gehienak galtzetik, gehienak berdintzera eta noizean behin baten bat irabaztera pasatu da, Kopan Bigarren B mailako talde baten belarrondokoa, Yerayren itzulera, Laporteren agurra, Iñigoren ongi etorria, jokalaria askoren kontratu berritzeak (Kepa barne)...

Nahaspila honetan helburuak argi izatea eta, ondorioz, erregularra izatea ez da erraza; horren lekuko, aurtengo denboraldia. Hala ere, gutxi falta bada ere, oraindik bi txapelketatan murgildurik gaude. Aukera ederra, beraz, bietan aurrera egiteko. Hori bai, European aurkariak geroz eta indartsuagoak izanik eta igandean Atletico Madril en etxera goazela ikusirik, taldeak bere bertsiorik onena erakutsi beharko du eta jokalariek duten onena eman beharko dute nahitaez.

Eta ez hori bakarrik, konfiantzaz lar osasuntsu ez dagoen taldeak bere zalegoaren aupada behar duela uste dut. Barrutik eta kanpotik, kanpotik eta barrutik. Denboraldiko une erabakiorrean gaude eta guztiok norabide berbera hartuz, egoerari buelta eman eta ezinezkoa dirudiena lorgarri bilaka genezake!

Beraz, utz ditzagun gure desadostasunak alde batera eta elkar gaitezen. Aupa ditzagun gure mutilak eta berreskura dezagun ilusioa! Izan gaitezen Danok Bat!

Gimnasia erritmikoak 800 gaztetxo batuko ditu Durangon

Eskolarteko txapelketa jokatu dute Landako kiroldegian

GIMNASIA ERRITMIKOA • J.D.

Bizkaiak gimnasia erritmikoan duen harrobia Durangon batuko da zapatuan. Eskolarteko txapelketak kimu mailako eta haur-kategoriako 800 bat gaztetxo batuko ditu Landako kiroldegian. Egun oso iraungo duen jardunaldia izango da, 10:00etatik 20:00etara artekoa.

Durangoko Uztaik zortzi taldegaz parte hartuko du: bost kimuetan eta hiru haur kategorian.

Eskolarteko txapelketa bi fase-tan banatuta dago. Durangokoa aurrenekoa izango da. Fase bi-tako puntuazioaren batez bestekoa hartzen da kontuan aurrera zein taldek egiten duen jakiteko.






Durangoko Uztaik zortzi talderekin parte hartuko du txapelketan.

Otsailaren 16an
barikua, 19:00etan

EUSKLABO ALAIK

ASISKO URMENTA
ETA UNAI ITURRIAGA

SARRERA DOAN!!



hitz liburutegia

artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Mintzaldi Ilustratua



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 **IURRETA** - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791

Alaskako pareta batean bizitako 17 egunak berbagai izango ditu Vidalek Plateruenean

19:00etan hasiko da Mendiak Hurbilduz hitzaldi zikloa, Plateruena Kafe Antzokian



Bi hilabetez Alaskan egon zen Silvia Vidal. www.vidalsilvia.com

ESKALADA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan den barikuan hasi zen Mendiak Hurbilduz goi-mendiari eskaintako hitzaldi sorta, eta gaur emango diote amaiera ekimenari. 19:00etan, Silvia Vidal katalanak berbaldia eskainiko du Plateruena Kafe Antzokian. Bertan, eskalatazaileak bi hilabetez Alaskan bizitako esperientzia kontatuko du. "Xanaduko bizipenak izango ditut berbagai gaur Durangon", adierazi du katalanak.

Aurreko udan, Vidalek eskalatzeko bide berri bat ireki zuen Alaskan. Eskalatazaile katalanak 17 egun eman zituen horman, bakarrik, eta irekitako bideari 'Un pas més' izena jarri zion. "Esperientzia izugarria izan zen; abentura gogorra eta polita izan zen aldi berean", adierazi du.

17 egun horman bide berria irekitzen emateaz gain, Silvia Vidalek 36 egun eman zituen hormara materiala eta janaria eramaten. 25 kiloko sei zaku garraitu behar izan zituen eskalatazaileak eta, horretarako, hainbat kilometro egin behar izan zituen. Guztira, 20 joan-etorri egin zituen ur-hegazkinak utzi zuen lekutik pareteraino. "Orotara, 540 kilometro egin nituen. Azken batean, egun guztietarako janaria eta materiala eramane behar izan nuen. Horrenbeste kilo garraiatzea gogorra egin zitzaidan, baina, hala ere, ikaragarria izan zen", esplikatu du.

Alaskan bakarrik egoteaz gain, telefono eta irrati seinalerik barik egon zen Vidal, bakartuta, eta horri esker anekdota ugari dituela aitortu du.

Bertan izandako bizipenen inguruan hitz egingo du eskalatazaile katalanak gaur; eta horrelako zikloek espedizioetan bizitakoa gogora ekartzeko balio izaten diotela esan du. "Gainera, nire ustez, berbaldi hauek zentzua ematen

Eskalatazaileak 540 kilometro egin zituen oinez 25 kiloko sei zaku paretera eramateko

diote egindakoari eta lortutakoari", jarraitu du.

Horrez gain, 19:00etan hasiko den hitzaldian, Durangon dituen lagunak berriro ikustea espero duela esan du.

Luis Polancok aizkora desafioa bota dio Alexander Azkargortari

Otxandiarraren proposamena 60 ontzako zortzi enbor moztea da; eguna eta ordua jarri ditu tratua ixteko

AIZKORA • J.D.

Aizkora mundua beste desafio baten atarian egon daiteke. Luis Polanco otxandiarrak erronka bota dio Aramaion bizi den Alexander Azkargortari aretxabaletarrari. 60 ontzako zortzi enbor moztea da proposamena. Apustua "ekainaren amaieran edo uztailaren hasieran" egiteko prest legokeela adierazi du.

Otsailaren 23ko barikuan, 20:00etatik 21:00etara, Otxandio-ko Basaguren jatetxean izango da desafioaren inguruko gorabeherak eztabaidatzeko. Azkargorta bertaratzen bada eta adostasun

Polancok gustua hartu dio aizkora munduari. Iaz beste desafio bat izan zuen herriko jaietan

batera heltzen badira, apustua ofizial egingo lukete.

Polancok gustua hartu dio aizkora munduari. Iaz, herriko santamaña jaietan, Saul Velasco

Otsailaren 23an Basaguren jatetxean jarri du hitzordua desafioari buruz berba egiteko

otxandiarraren kontra apustu bat izan zuen eta garaile irten zen. Velascok esperientzia zuen aizkora munduan, baina Polanco 17 urte gazteagoa zen. Bost kanerdiko enbor ebaki zituzten, eta Polanco lehenengo enborretatik hasi zen Velascori aldea ateratzen. Desafioak ikusmina piztu zuen Otxandion, eta plaza lepo bete zen.



Luis Polanco iaz santamaña jaietan izan zuen desafiorako ateratako argazkian.

Asteko kirolaria



ILLART ZUAZUBISKAR GALLASTEGI

Abadiño, Txirrindularia

Azken urteotan belodromoan zentratuta dabi Illart Zuazubiskar, eta pistako Espainiako Kopan brontzeko domina eskuratu berri du.

"Orain arte egindako lanak Munduko Txapelketan emaitza onak ematea espero dut"

Hile amaieran pistako Munduko Txapelketan parte hartuko du Illart Zuazubiskarrek

Hiru jardunalditik bakarrean parte hartuta, podiumean bukatu duzu Espainiko Kopa. Espero al zenuen? Egia esan, ez. Espainiako Txapelketa eta Kopa zirenez, Galapagarren (Madril) parte hartzea erabaki nuen, eta bertako jardunaldia irabazi nuen arren, beste bi lasterketara ez naizenez joan ez nuen espero podiumean amaitzea.

Otsail amaieran pistako Munduko Txapelketan izango zara. Ze helbu-

rugaz zoaz Holandara?

Holandan taldekako jazarpenean lan txukuna egitea gustatuko litzaidake. Aurten ez ditugu esportako emaitzak lortu, eta arantza hori kendu eta lehenengo hamabietan bukatzea polita litzateke. Gainera, maila onean nagoela uste dut, asteburuan Essor Basque lasterketan oso indartsu sentitu nintzen eta. Beraz, Munduko Txapelketan orain arte egindako lanak

emaitza onak ematea espero dut.

Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?

Munduko Txapelketaren ostean, atsedenaldira hartu eta abuztuan jokatu den pistako Europako Txapelketa buru-belarri prestatu gura nuke. Gainera, hortik aurrera, Olinpiar Jokoetarako puntuak emango dituzte lasterketek, eta horiek lortzea ere izango da nire asmoa. Bestalde, denboral-

di berrian iraupeneko probetan aurrerapauso bat ematea gura nuke.

Nolako da pistako txirrindularien egungo egoera?

Eskasa. Euskal Herrian pistako txirrindularioi ez digute errepidean maila gorenean aritzeko aukerarik ematen, eta hori guztiarekin ezinbestekoa da gure mailarik onena emateko. Gainera, askok ez dute ulertzen urte guztirako ogia Europako eta Munduko Txapelketan lortu behar izaten dugula, eta, afizonatu mailan, soldatarik gabe arituta ezinezkoa da gura gure mailarik onena emateko. Horri aldatzen ez den bitartean, pistaren egoera ez da hobetuko.

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
MATIENA. 3 gela. Komuna. Sukaldea. 83.000€
SAN FAUSTO. 3 logela. Bainugela. 77.000€
AUKERA. 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela, terraza. Ganbara. Garajea. 145.000€
DURANGO. Erdigunean. Apartamentua. Eguzkitsua. 138.500€
IZURTZA. 2 logela. Bainugela. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta txakurrentzako txabalola. 72.000 €
IURRETA. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela-jangela. Berogailua. 120.000€
ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. 129.000 €

//ETXEBIZITZAK SALGAI
MURUETA TORRE. la-berria. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Lehorgailua. Egongela terrazarekin. Ganbara eta garaje.
MADALENA. Aukera Duplexa egiteko. Azken solairua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Garajea. ORAIN: 260.000€
ABASOLO. 107m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela eta 2 terraza. Ganbara eta garaje itxia. 270.000€.
ANTSO EZTEGIZ. 90m. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela eta terraza. 165.000€.
ASK.ETORBIDEA. 65m2. la-berria. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela handia. Ganbara eta garajea. 175.000€
SAN IGNACIO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. Solariuma. Igerilekua.
MONTEVIDEO. Pisu altua. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Ganbara. 155.000€
J.A. AGIRRE: Azken solairua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela terrazarekin. 2 ganbara. Garajea.
LANDAKO (TXIBITENA). 100m2. 4 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela handia. Ganbara. Garajea. Kanpoaldea. 209.000 €
TABIRA. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Despentsa eta trastelekua 85.000€
ANBOTO. 3 logela. Bainugela. Sukaldea handia. Egongela balkoiarekin. DENA BERRIA. 178.000 €
F. J. ZUMARRAGA: 130m. 4 logela (orain 3 logela) horma armairuarekin, 2 bainugela. Sukaldea eta egongela handia. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garaje itxia bi kotxentzat (aukeran). 285.000 €
BERRIZ. Txalet adosatua. 4 logela. 4 bainugela. Egongela bi terrazakin. Sukalde handia. Garajea eta txokoa. 410.000.-€
LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. 226.000 €

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN
ARTEKALE: 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. 94.000 € negoziagarri.
LOCAL INVERSION. 50m2 EGOKITUA. 85.000€.
DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. 162.500€
C/ERMODO. ALOKAIUA. 600 €
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA 150.000 €
IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIUA. 500 €.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN
DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, Egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.
DURANGO. Gasteiz bidean. Lau logelako pisu ederra, egongela balkoiarekin, sukalde ederra, komuna, ganbara eta aparkalekua. Gela guztiak kalera, eta oso argitsua.
DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea
BERRIZ. Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.
DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.
DURANGO. ARTEKALE. Azken duplex-ak, Logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitekia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA. Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berritatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teiltatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. B° Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berritatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatzeke.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitio zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIUAN
Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 3 logela
2 komun
79,24 m²
SAN IGNAZIO: 79,24m2, eguzkitsua. 3 logela, bainugela 2, egongela, sukaldea jarrita. Balkoia, esekitekia, garajea eta trastelekua.
235.000€

DURANGO 1 logela
65,55 m²
ASKATASUN: Egongela, sukaldea jarrita, gela 1, komuna eta balkoia. Egoera onean eta ondo zainduta. Garajea eta trasteleku
175.000€

DURANGO 3 logela
1 komun
TABIRAKALEA: Guztiz berritua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bat eta balkoia-igogailua.
180.000€

DURANGO 1 logela
45,30 m²
ARRILUZEA: Apartamentu polita. 45,30m2. Logela 1, nbainugela 1, sukaldea, egongela eta garajea.
169.000€

DURANGO 2 logela
64,64 m²
ANBOTO: 64,64m2, 2 logela, egongela, sukalde handia eta bainugela 1.
148.000€

DURANGO 3 logela
68 m²
KALEBARRIA: 68 m2. 3gela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta gas natural berogailua. C.E.E.F.
125.000€

DURANGO 3 logela
82 m²
Komentu kalea 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **310.000€** +BEZatik aurrera.
310.000€

//DURANGO
ARAMOTZ 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 95.000 € / E.E.Z=G
ASK. ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa 146.000 € / E.E.Z=F
ASKATASUN ETORBIDEA Logela 1, sukaldea, egongela, bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 175.000 € / E.E.Z=E
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa eta igogailua. 146.000 € / E.E.Z=F
LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi. Garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E
BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela 120.300 € / E.E.Z= G
BERNARDO GABIOLA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela LEHEN 85.000 € ORAIN 80.000€ / E.E.Z=E
ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 210.000 € / E.E.Z=E
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia 205.000 € / E.E.Z=E
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F
FRANCISCO IBARRA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, despentsa 230.000 € / E.E.Z= F
JUAN DE OLAZARAN 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, 94m2 ko terraza. Garajea. Lehen 376.000 € Orain 369.000€/ E.E.Z=B
KOMENTU 3 logela, sukaldea, egongela, terraza 135.000 € / E.E.Z= G
MIKELDI 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna, 2 balkoi 200.000 € / E.E.Z= E
MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, komuna, garaje eta kamarotea. Lehen 270.000€ Orain 260.000 € / E.E.Z= E
MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 230.000 € / E.E.Z=F
PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. trasteroa, Garajea. 270.000 € / E.E.Z=E
SANTASUSANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 240.000 € / E.E.Z=E
ZUMALAKARREGUI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela. Garajea. 695.000 € / E.E.Z=E

//ABADIÑO
FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Garajea. Lehen 190.000 € / Orain 175.000 € E.E.Z=G
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

//BERRIZ
MURGOITIO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia. Lehen 120.000€ / Orain 95.000 € / E.E.Z= F
BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 120.000 € / E.E.Z= F

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garaje itxia 219.000 € / E.E.Z= E
LABAKUA KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, despentsa 198.000 € / E.E.Z= F

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserria: Jatetxe eta etxebizitza 5hektareako lurzoruzagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G

//NOBEDADEAK
ARTEKALE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia 235.000 € / E.E.Z= F

//BERRIZ
ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, aseoa eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera 142.000 € / E.E.Z= G



Botikak

BARIKUA, 16 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis
09:00-22:00	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	MARTITZENA, 20 - 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
ZAPATUA, 17 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis
09:00-13:30	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 21 - 09:00-09:00
BALENCIAGA	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SAGASTIZABAL	SARASKETA, DIEGO Luis
Askatasun etorb. 19 - DURANGO	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 22 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI	09:00-22:00
San Pedro 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 18 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BALENCIAGA	09:00-22:00
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis
ASTELEHENA, 19 - 09:00-09:00	Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENAKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Kattalin (707. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Matxalenek eta **Manexek** urteak betetzen dituzte asteburuan. Zorionak eta mosu potoloak biontzat. Ondo ospatu, bikote!



Atzo **Laiak** 8 urte egin ebazan. Horrelako izozki handi batekin ospatu nahi dozu? Izozia ez bada ere, pastela seguru badagoela eta etxeko guztien musu goxo-goxoak ere bai. Zorionak etxekoen partez.



Zorionak **Ixorretako 5. sorgiñeri!** la noz bueltetan zaien Ixorretara, zugaz egoteko goguz gauz ta! Moxu handi bat Uxue, Helene, Garazi, Irati eta "andren" partez!



Zorionak, **Angel**, etxeko denon partez. Oso ondo pasa dezazula.



Zorionak, **Zipi** eta **Zape!** Etxekoen eta lagun danen partez!



Zorionak, **Iara!** Otsailaren 8an 8 urte bete zenituen. Asko maite zaitugu. Musu handi bat Jurgiren, aitaren eta amaren partez.



Otsailaren 11n Apeko **Mikel** Armendiak 7 urte egin ebazan. Zorionak eta mosu handi bat danon partez.



Azkar pasatu zaigu, baina jada **Arik** urte bat beteko du bariku honetan. Milaka momentu bizi izan ditugu, gehienak politak. Zorionak amatxoren eta aitaxoren partez!

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

MACOBER

Chimeneas

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

“Aiten presentzia asko handitu da kontsultetan; lehen futbolera eramateko orduan ohartzen ziren umea zutela”

Urteetan Elorrioko osasun etxeko pediatria taldeko kide izan dira Itziar Eguren erizaina eta Sara Egidazu pediatria. Pozik bete dute euren jarduna, baita gogoz hartu ere jubilazioa

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

la 30 urtean Elorrioko pediatria taldeko kide izan ondoren, bizitzaren etapa berri batean murgilduta bizi dira Sara Egidazu eta Itziar Eguren. “Bizitzak aurrera darrai eta beste era batera bizitzeko sasoia bizi dugu”, nabarmendu dute. Osasun zentroan emakume bakarrak izan ziren hasierako urte haietan, eta ez zela erraza izan aitortu dute. Medikuntzan aldaketa garaia bizi izan zuten. Orain, patxadaz bizitzeko aukera aldarrikatzen dute.

Durungaldeko Amankomunazgoak antolatutako ikastaro baten haritik, eskualdeko hainbat jubilatuk ‘Before I die’ dinamika abiatu zuten urtarrilean, hil aurretik zer egin hausnartzeko. Tartean izan zara zu ere, Sara. Ez dugu hausnarketa hori egiten?

Sara Egidazu.: Lanean oso murgilduta bizi dugu bizitzaren hasiera, baina oso gutxi landu da amaiera. Proiektu txiki bat izan da; izan ere, lan asko dago egiteko, bizitzaren amaieraz natural hitz egiteko...

Itziar Eguren: Osasun arloan ere konpondu gabeko arazoa da bizitzaren amaiera, nahiz eta lan asko egin den.

S. E.: Bai. Osatzeko trebatu gaituzte osasun langileak, baina ez gaituzte prestatu hori lortu ezin denerako. Langilearen esku dago neurri handi batean hori, eta bakoitzak era batera egiten dio aurre bizitzaren amaierari.

Zer egin gura duzue zuek?

S. E.: Patxadaz bizi. Aktiboki zahartzeko beharra dagoen sentsazioa dut, eta lasai egoteko eskubidea dugu. Gura dudana horretan inplikatu naiteke, baina ez dut egun osoa inplikaturik egon beharrik. Kozinatze, lagunak mimatzeko... aukera aldarrikatzen dut.

I. E.: Lasai bizi, eta, ahal bada, nahigabe edo estropezurik gabe. Ez gaude inora joatera behartuta, hau

eta bestea egitera derrigortuta... Askotan estresatuta!

Itziar, 10 urtegar txistua jotzen hasi zinen. Utziko diozu horri inoiz?

I. E.: Ez! Putz egin ezin dudanean, igual. Maiatzean Betsaide dantza taldearen 50. urteurrena ospatuko dugu, eta Elorrioko txistulari guztiak animatu gura ditut txistua armairutik atera eta pieza pare bat jotzera.

Elorrioko pediatria taldea osatu duzue biok ia 30 urtean.

S. E.: Bai. Hasieran emakume bakarrak ginen, eta ohikoak ziren ‘abade jauna’ eta ‘mediku jauna’ lakoak, baina feminizatzen den guztiak balioa galtzen du... nik hala bizi izan nuen. Hasiera ez zen erraza izan, andrea nintzelako, eta bertakoa.

I. E.: Orduan hasi ginen ere katarroako antibiotikorik ez ematen, behar ez bazen erradiografiarik ez egiten... Aldaketa izan zen.

Asko aldatu da pediatria?

S. E.: Bai. Historia klinikoekin hasi ginen, mediku-gai hutsak ez zirenak apuntatzen, umeari zuzentzen... Orain beste muturrean gaude. Fidakor zetozen lehen gurasoak; azken urteetan,

aldiz, medikuari edo erizainari azterketa egitera datoz batzuk. Informazio asko, bai, baina gurasoek ez dute formakuntzarik, eta horretan laguntzaile onak izan gaitzke pediatriak. Aiten presentzia ere asko handitu da kontsultetan urte hauetan; lehen futbolera eramateko orduan ohartzen ziren umea zutela. Orain, erantzukidetasun gehiago ikusten da, zaintzan gehiago jarduten dute, bihozberagoak dira umeekin...



Itziar Eguren Gallastegi (1953) eta Sara Egidazu Gabiria (1951)
Pediatria taldea osatu dute **Elorrio** |

Gurasoen kezka berdina dir?

S. E.: Prebentzioa, elikadura... asko dira ardurak. Baina, orain, galderak gehiago dira arlo psikosomatikoak (jarrera arazoak, eskolako arazoak...). Askok gehitu dira mota horretako galderak.

Umeekin lan egitea zaila da?

I. E.: Ez! Beti izan dut argi gauza bat: onera baliteke ezer ez lortzea, baina txarrera seguru ezetz.

Izango duzue pasarteren bat gogoan.

I. E.: Ume bati odola atera behar nion, baina ez zioten ezer esan. Konturatzean, ihes irten zen. Gaur egun aita da. Ez dakit gerora odolik atera dioten.

S. E.: Ume bati zauria josi behar nion, eta, lasaitu guran, asko maite nuela esan zion bere amak. Haren erantzuna gogoratzen dut ikusten dudana bakoitzean: “Bai, kaka!”

Pediatrik falta dira. Zergatik?

S. E.: Aspaldiko aldarrria den arren, pediatria-erizainik ez dagoen arrazoi beragatik: administrazioak ez dio garrantzirik eman gure

paperari. Bai, ordea, gizarateak. Plangintza txarra egon da urteetan, ez dira nahikoa plaza atera pediatrik trebatzeko. Azkenaldian gehitu dira, baina belaunaldiko aldaketarako ez dira nahikoa.

Lauhortza

Paul Bustindui
Reuelta
Kazetaria



Influencerrak

Azken urteetan publizitate arloan indar handia hartu duten pertsonak dira *Influencerrak*. Ostalaritza, turismo eta aisialdi-ko sektoreetatik gero eta kexa gehiago entzuten dira hauen inguruan, gonbidatuak izateko eskaerak egiten dituztelako pertsona hauek, doako egonaldi edo afariak lortzeko. Baina influencer hauekin lan egitea probetxugarria da?

Urte hasieran, oso birala egin zen David Muñoz chef madrildarraren txio bat twitterren. Sukaldariak salatu nahi zuten *influencer* askok doan afaltzeagatik jantzetan egon izanaren fotoak elkarbanatuko zituztela hauen sare sozialetan. Muñozentzat onartezina zen hau. Bestalde, White Moose Café hotelak ere *influencer* baten posta elektronikoko bat jaso zuten orain dela gutxi, egonaldi batengatik bertako argazkiak elkarbanatzearen truke.

Pertsona hauekin lan egiteak ospe hobea ekar liezaioke gure markari, bezero potentzial handiago batera zabaltzeko tresna egokia baitira. Edozein marketing kanpaina berritan berebiziko indarra dute azkenaldian. Ze puntutaraino izan daiteke probetxugarria irratit batean gure tabernaren iragarki bat jartzea, edo *influencer* batek gure taberna bisitatu eta bertan argazki bat ateratzea edozein produktu dastatzeko.

Non jarri dezakegu *influencer* raren langa? Ez baita berdina sare sozialetan 5.000 jarraitzaile dituen edo milioi bat jarraitzaile dituen pertsona bat izatea. Etorkezunari begira arlo batzuk argitu beharrean gaude: nor da *influencer* eta nor ez, eta ze jarraitzaile kopurutik aurrera izan daiteke probetxugarria? Hemen koska.



TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499

Hartu atsedenalditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •